

“Bertsolaritza Ikastetxean” Proiektua

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Najera Saez de Vicuña, Aitor

TUTOREA: Barandiaran Amarica, Asier

2019-2020 IKASTURTEA

AURKIBIDEA:

1. SARRERA	4
2. ONARRI TEORIKOA	6
2.1. Bertsolaritza historian zehar	6
2.2. “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektua	9
3. ONDORIOAK	12
3.1. Euskara	13
3.1.1. Euskal Kultura	14
3.1.2. Oinarri eskasa	15
3.2. Musika	17
3.3. Ludikotasuna	18
3.4. Metodologia	19
3.4.1. Inrobisaziora aldaketa	19
3.4.2. Baliabide digitalak: bertso ikasgela	19
3.4.3. Arabako eskualdeak	20
3.5. Komunikazioa	22
3.5.1. Ikasleak	22
3.5.2. Irakasleak	22
3.6. Zubi lana	24
3.7. Eraginkortasuna	25
3.7.1. Hizkuntza hautua	25
3.8. Etorkizuna	27
3.8.1. Diru laguntzak	27
4. PROPOSAMENA	29
4.1. Nire Proposamena	30
4.1.1. Justifikazioa	30
4.1.2. Helburuak	31
4.1.3. Jardueraren deskribapena	31

5. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	34
6. BIBLIOGRAFIA	36
7. ERANSKINAK	37
7.1. Jon Ruiz de Pinedori elkarrizketa	37
7.2. Peru Abarrategiri elkarrizketa	45
7.3. Uxue Diaz de Ceriori elkarrizketa	52
7.4. Oihane Pereari elkarrizketa	59

1. SARRERA

“Bertsolaritza”. Horren gertuko eta ezaguna izan dudana hitza baina aldi berean horren ezezaguna izaten jarraitzen duena. Jaio nintzetik gurasoek euskal kulturaren murgildu izan naute. Gogoan ditut “Takolo, Pirritx eta Porrotxen” ikuskizunak, Bernardo Atxagaren “Xola” liburu bildumak, Ken Zazpi bezalako euskal talde ugariaren kantak...

Hauek guztiak ezagunak izan ditudan bezala bertsolaritza ere ezaguna egin izan zait, ezaguna baina ezezaguna aldi berean. Izan ere, gurasoak bertsozaleak izan ez diren arren Gasteizko jaietan sarritan egon izan gara Ahiotz plazako bertso saioak entzuten. Tutik ulertzen ez genuen arren eta ezezaguna izan zitekeen arren bertsolaritza ezaguna egin zait urte luze hauetan zehar.

Lehen Hezkuntzako bosgarren mailara salto egin nuenean bertsolaritza eskolan landu egiten zela konturatu nintzen. Iñaki Viñaspre bertsolaria ikastetxera etortzen zen bosgarren eta seigarren mailako ikasleei bertsolaritza saio batzuk ematera eta urte horretan niri egokitu zitzaidan saio horiek jasotzea. “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuaren zabalkuntza garaia zen orduan, 2008. urtea zehazki, eta ikasleok oso harrera ona egiten genion Iñakiri gure ikasgeletan sartzen zenean.

Pare bat urte igaro ondoren, nire herrian, Zalduondon, herriko zenbait gazteri esker bertso-eskola sortu egin zen. Bertan sartu eta “Bertsolaritza” gertutik ezagutzeko aukera paregabea izan nuen.

Lan honetan, “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuak urte luzez ikastetxeetan izandako garapena ezagutaraziko da eta bide horretan gaur eguneko bizi duen egoera azalduko da. Horretarako, marko teoriko batean informazioa bildu eta hezkuntza arautuan bertsolaritza saioak ematen ibili diren eta ematen jarraitzen duten lau irakasleri elkarrizketak egingo zaizkie. Testigantza horiek izango dira lanaren muina, haien esperientziari esker jasoko baita proiektuaren gaur eguneko bizi-kalitatea.

Testigantzek, ordea, ez dute bakarrik egitasmoaren ondorio positibo eta negatiboak bilduko, proposamen bat aurkeztuko da. Proposamen horrek egitasmoaren hutsunean identifikatu eta horiei aurre egin edo hobetzeko pausoak zehaztuko ditu.

Beraz, lan honetan elkarrizketatuak izan diren lau irakasleei eskerrak ematearekin batera, asko luzatu gabe, aurrera egingo dugu lan honekin.

2.OINARRI TEORIKOA:

2.1. Bertsolaritza historian zehar:

Munduko estatu, lurralde, eskualde eta herri ezberdinek urteetan zehar milaka istorio eta gertakizun pilatzen joan dira eta guzti horiek euren altxorrik preziatuenaren barruan gorde izan dituzte: kulturean.

Kulturak ohitura, erritu, asmakuntza edo tradizioak izateaz gain herri edo herrialde ezberdinetako ondare historikoa, artistikoa eta literarioa ere biltzen ditu. Tony Duffyk aipatu bezala¹ *“kultura ere bada eguneroko bizitzan hurbilagoko adierazten eta atzeman daitekeen zerbait”*. Esperientzia kolektiboak eguneroko bizitza ulertzeko, jarraitzeko eta garatzeko aukera ematen du eta Duffyk esperientzia kolektibo hori “taldearen kulturean” islatzen dela aipatu zuen; hain zuzen ere, talde sozial bakoitzak, familiak, eskolako ikasgelak eta abarrek osatzen duten talde-kulturean.

Herrialde edo herri baten kultura baten atzean taldearen kultura dago eta Euskal Herriak ere historian zehar bere historia propioa sortu eta idazten joan da. 1545. urtean Bernart Etxeparek² *“Linguae Vasconum Primitiae”* euskaraz idatzitako eta inprimatutako lehen liburua plazaratu zuen arren, literatura idatziaz gain, Euskal Herriko literaturaren barnean, ahozko literaturak bereziki, sekulako garrantzia izan du.

Ahozko literatura mantentzeko hizkuntza baten beharra dago eta Euskal kulturak euskara izan du oinarri eta euskarri nagusia. Hizkuntzak galtzen joan diren neurrian euskarak bere horretan mantentzen saiatu da, gorabeherak gorabehera. Xabi Payak bere antologietako batean³ modu honetan laburbiltzen du euskararen biziraupenaren gakoa gaur egunera iritsi arte:

“Bizirik irauteko gako nagusia euskararen erabilera bizia baino ezta izan, hainbat euskalkiren existentziak hizkuntzaren oparotasuna iradokitzen duenez gero”.

¹ Duffy, T. (2002). 44

² Beitia I.A. (2013)

³ Paya, X. (2013). 18.

Ahozko Euskal literatura horren adibide ezagunenetako eta landuenetako bat bertsolaritza da. Xabi Paya bertsolariak modu honetan definitu zuen bertsolaritza⁴:

“Bertsolaritza diskurtso neurtu, errimatu eta kantatuen artea da. Bertsolariak, arte horretan diharduen sortzaileak, bigarren batek proposatutako gai baten zein berak hautatutako beste baten inguruan pieza bat –bertso bat– kantatzean datza bertsolaritzaren performancea”.

Urteetan zehar pertsona asko izan dira bertsolaritzaren inguruko definizioa sortzen saiatu direnak baina ez horrenbeste bertso baten bitartez lortu dutenak. Xabier Amuriza bertsolari eta idazle bizkaitarrak modu honetan definitu zuen bertsolaritza bere bertsoetako batean⁵:

*“Hizketan lerratzen da
gizonen bizitza,
jolas edo jokoan
pozago gabiltza
Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza,
horra zer kirol mota
den bertsolaritza.*

Bertsolaritzak historian zehar aldaketa eta moldaketa asko bizi izan ditu; eta XX. mende hasierako bertsolaritzak ez zeukan mende bukaerako bertsolaritzarekin zer ikusirik. XX. mendean zeharreko bertsolaritzaren aldaketaren gako nagusietako bat bertso-eskolak⁶ izan ziren, Asier Barandiaran irakasle galdakoztarrak adierazi bezala:

“Bertsolaritza garai batean ahoz transmititzen bazen ere, XX. mendean zehar bertso-eskola delakoa sortu zen eta hari esker lehen intuizioz eta, sarritan norberaren dedukzioz ikasten zena, modu metodologiko batez transmititzen hasi zen bertsolaritzaren artea”.

80. hamarkadan Xabier Amurizaren *Zu ere bertsolari* liburuari eta Juanito Dorronsororen *Bertsotan I eta II* liburuei esker bertso-eskolek aurrez izan gabeko material didaktikoa eskuratu zuten. Bertsolaritza irakasteko metodo didaktiko berri haiei esker

⁴ Paya, X. (2013). 27.

⁵ <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza/sarrera-zer-da-bertsoa>

⁶ Barandiaran, A. (2015). 247.

bertso-eskolen loraldia eman zen, aurrez bertso-eskola gutxi batzuk martxan jarri baziren ere⁷.

⁷ <https://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/16-Bertsolaritzari%20buruz--transmisioa#bertsoeskolak>

2.2. "Bertsolaritza Ikastetxean" proiektua:

XX. mendearen azkeneko txanpa horretan bertso-eskolek hartu zuten bertsolaritza transmisioaren ardurarik handiena. Bertsozale Elkartearen ildo nagusietako bat transmisioa izan da eta une horretan bertsolaritza hezkuntza arautuan sartzea pentsatu zuten, ikastetxeetan. Horretarako "*Bertsolaritza Ikastetxean*" proiektua martxan jartzea erabaki zuten⁸, honako bi helburuekin: batetik, bertsolaritza indartzen eta honen ezagutzaren bidez partaidetza elikatzen; eta bestetik, herri ezberdinetan transmisiorako beharrezkoak ziren bertso-eskolak sortzen edo abian zeudenen partaidetza handitzen.

Hasieran, 1999.urtean zehazki, bertsolaritza Nafarroako hezkuntza publiko arautuan muturra hasi zen Nafarroako Hezkuntza Sailaren eta Nafarroako Bertsozale Elkartearen adostasun baten bitartez. Ikastetxeetan proiektua martxan jarri zutenean sei orduko ikastaroak egiten hasi ziren baina egitasmoa indarra hartzen joan zen heinean 30 orduko ikastaroak ematera pasa ziren. 2012 eta 2013 urteetan gutxi gorabehera, hezkuntzak jasandako murrizketak direla medio, ikastaro horiek hamabost ordukoak izatera pasa ziren. Ordu gutxiagoko ikastaroak jasotzen bazuten ere aukera handiagoa izan zen egitasmoa beste ikastetxeei luzatu eta bertsolaritza Nafarroa osoko ikastetxeetara zabaltzeko⁹.

Nafarroa izan zen proiektu honen abiapuntua baina ondoren Euskal Herriko lurralde ezberdinetara zabaldu zen gaur egunean zabalkunde hori handituz. Bertsozale Elkartek martxan jarritako "*bertsoikasgela*" web-orrialdean modu honetan adierazten da zabalkunde hori¹⁰:

"Urteetako ibilbideari esker, euskararen eremu osora zabaldu gara; Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Araban, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan, ikasturtero 25.000 ikaslek baino gehiagok lantzen du bertsolaritza bere ikastetxean, Bertsozale Elkarteko 50 irakasleren eskutik".

2008.urtean, proiektua sendotzeko asmoz, oinarri teoriko bat sortu zuen Euskal Herriko Bertsozale Elkartek, EHUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko adituen laguntzaz. Lan horri "*Bertsolaritzaren Curriculum Lehen Hezkuntzan*" izena jarri zioten eta une horretatik aurrera ikasgeletan landutako guztiak bertsolaritzaren

⁸ <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120501/gu-ere-bertsotan-eskolan-bertsolaritza-sustatzeko-egitasmoa>

⁹ Barandiaran, A. (2015)

¹⁰ <https://bertsoikasgela.eus/info/>

curriculumean oinarritzeko aukera izango zuen¹¹. Bertsozale elkarteak, gainera, 2011.urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren Ixaka Lopez Mendizabal saria jaso zuen, egitasmoari bultzada emanez eta hau indartzuz¹².

Curriculum honek zehazten ditu proiektu osoaren ardatz metodologikoak, landu daitezkeen arlo ezberdinak, arlo bakoitzeko edukiak eta ebaluazio adierazleak. Ikasgeletan bertsolaritzaren inguruan landuko den eduki oro lau arlo nagusi hauetan oinarritua izango da: hizkuntzan, musikan, kulturen eta trebetasun pertsonal eta sozialetan¹³.

Bestalde, aurrez aipatutako “bertsoikasgela” web-orriaren deskribapenean “*Bertsolaritza Ikastetxeetan*” egitasmoak gaur egunean dituen helburuak aipatzen ditu; ikasleei edota ikastetxe zein herri mailari dagokienez¹⁴:

- *Ikasleei dagokienez:*
 - *Bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza izatea eta zaletasuna piztea.*
 - *Euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta hizkuntza komunikaziorako konpetentzia (bereziki ahozkotasuna) garatzea.*
 - *Jendaurreko emanaldi bat gauzatzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea.*
- *Ikastetxe zein herri mailari dagokionez:*
 - *Bertsolaritza sustatzea ikastetxean eta herrian.*
 - *Ikastetxeaz kanpo haurrek jarraipena ematea zaletasun horri.*
 - *Euskararen erabilera bultzatzea.*

Egitasmoan parte hartzen ari diren irakasleek etengabeko formakuntza jasotzen dute eta erabiltzen duten metodologia garai berriei egokitutakoa da. “*Gu ere bertsotan*” egitasmoak ikaskuntza autonomo eta parte hartzailea sustatzen saiatzen da, prozesu irekia zabalduz. Ikasle bakoitzak ikasturtearen hasieran urte osoan garatu nahiko lituzkeen helburuak zehazten ditu eta irakasleak, ikasgelako aniztasuna kontuan hartuta, ikasle guztien helburuak bildu eta bide desberdinak hartzen ditu¹⁵.

¹¹ <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120501/gu-ere-bertsotan-eskolan-bertsolaritza-sustatzeko-egitasmoa>

¹² <https://bertsoikasgela.eus/info/>

¹³ Aizpurua, K. (2015)

¹⁴ <https://bertsoikasgela.eus/info/>

¹⁵ <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120501/gu-ere-bertsotan-eskolan-bertsolaritza-sustatzeko-egitasmoa>

Urteetan zehar material didaktiko anitza erabili izan da; hala nola, “*Gu ere bertsotan I*”¹⁶ liburu didaktikoa. Baina 2011az geroztik bertso-irakasle taldeak material berria sortzen dihardu eta “*bertsoikasgelako*” web-orrian jaso daitekeen bezala¹⁷ gaur egunean “*Mundu bat bertso*” ikas-liburuekin lantzen ari dira bertsolaritza. Liburu hauetaz gain, aurrez aipatutako “*bertsoikasgela*” web-gunea ere martxan jartzea erabaki zuten 2008.urtean¹⁸; bertso-irakasle, ikasgeletako tutore zein ikasleek bertsolaritzaren inguruko material didaktiko oro (jolas, bideo, saio, etab.) jasotzeko aukera izan dezaten.

Azkenik, “*Bertsolaritza Ikastetxean*” proiektuak etengabeko ebaluazioa egitea bermatzen dio bertso-irakasleari zein tutoreari. Ikasturteko saio ezberdinetan zehar ikasle bakoitzaren jarraipen zuzena egin daiteke eta gaitasunak lortzen ari den behatu. Hau gutxi balitz, ikasturte amaieran egitasmoak ikasturteari itxiera bat emateko ekintza osagarriak proposatzen dizkio ikastetxeari. Ekintza horietan azkeneko ebaluazio bat egiteko aukera dago eta urtean zehar ikasitakoa aurkezteko aukera izaten dute ikasleek. Ekintza osagarri honen adibide dira kurtso amaierako bertso saioak, ikasleen emanaldiak edo ikastetxe ezberdinetan sortutako bertso-bildumak¹⁹.

¹⁶ Eizagirre, I. (2010)

¹⁷ <https://bertsoikasgela.eus/info/>

¹⁸ <https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza-ikastetxean>

¹⁹ <https://bertsoikasgela.eus/info/>

3.ONDORIOAK

Lan honen bidez “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuaren gaur egungo egoera aztertu eta azaldu nahi izan da. Horretarako, marko batean teoria jaso eta Arabako lau bertso irakasleei elkarrizketa bana egin zaizkie (ikus “eranskinak” atala), bakoitzaren esperientzia jaso eta testigantza ezberdinak biltzeko asmoz. Testigantza horietatik proiektuaren egungo egoera zein den aztertu da: batetik, proiektuaren indargune ezberdinak eta gaur egunean egitasmoak duen potentzialtasuna; eta bestetik, sortutako ahuleziak eta topatutako oztopo ezberdinak. Bide batez, etorkizunean ikastetxe ezberdinetan bere presentzia bermatzeko dituen erronkak ere identifikatu dira.

Esan bezala, “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektua gertutik eta barrutik ezagutzeko Arabako ikastetxe ezberdinetan Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailatan bertsolaritza irakasle izan diren eta gehienek gaur egunean diharduten lau pertsoneri elkarrizketak egin zaizkie (ikus “eranskinak” atala). Elkarrizketa hauetan proiektuaren nondik norakoak ezagutzea izan da asmoa; proiektua zertan datzan, dituen helburuak, onurak, metodologia, etab. aztertzea eta alderdi horiek irakasle horien esperientziarekin kontrastatzea.

Guztira lau bertso irakasle izan dira elkarrizketatuak eta guztiei galdera berdinak egin zaizkie. Honako pertsoneri egin zaie elkarrizketa:

- Jon Ruiz de Pinedo: bertso-eskoletako irakaslea eta hezkuntza arautuan lau urtez lanean ibilitakoa, gaur egunean jarraitzen ez duen arren. Arabako Bertsozale Elkartean lan egiten ibili izan da.
- Peru Abarrategi: bertsolaria eta aurten hezkuntza arautuan bertsolaritza irakasle lanean diharduena.
- Uxue Diaz de Cerio: 2011. urtetik bertso-eskoletako irakaslea, hezkuntza arautuko bertsolaritza irakaslea eta Arabako Bertsozale Elkarteko langile eta eragilea.
- Oihane Perea: 20 urte baino gehiago bertso munduan sartutako bertsolaria, bertso-eskoletako irakaslea, hezkuntza arautuko bertsolaritza irakaslea, Arabako Bertsozale Elkarteko langilea eta eragilea.

Lau irakasle hauek elkarrizketatuta eta proiektua barrutik ezagututa informazio esanguratsua bildu da. Elkarrizketatuek esandakoa konparatu eta atal honetan informazio bilketa horren ondorioak aipatuko dira, proiektuak Lehen Hezkuntzako ikasleengan non

eragiten duen ikusteko eta proiektu honen indarra azpimarratzeko. Besterik gabe, honako ondorioak jaso dira:

3.1. EUSKARA

Proiektuaren helburu nagusien artean euskararen erabilera indartu eta biltzeko hautua egiten da, modu honetan jasotzen du “bertsoikasgela” web guneak²⁰:

Ikasleei dagokienez:	<i>“Euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta hizkuntza komunikaziorako konpetentzia (bereziki ahozotasuna) garatzea.”</i>
Ikastetxe zein herri mailari dagokionez:	<i>“Euskararen erabilera bultzatzea.”</i>

Bertsolaritza saio hauetan ikasleen euskararekiko atxikimendua handitzea den arren proiektu honek gaztelaniatik euskarara salto egiteko trantsizio hori modu naturalean egitea eragiten du. Uxue Diaz de Ceriok aipatu bezala *“bertsolaritza hitzekin jolastea da eta euskaraz soilik lantzeko aukera ematen du; errima eta esaldiak metrika baten barruan jartzerakoan jolastu egiten dute eta jolas hau bakarrik euskaraz egiteko aukera dago.”*

Elkarrizketatu guztiek bat egiten dute euskara bertsolaritzan oinarria dela eta ikasleei ez zaiela inoiz behartu euskaraz aritzera; bai ordea animatu, bertsoekin jolasteko euskara beharrezkoa baita. Ikasleen euskararen erabilerak gora egiteko saio formatu hauen izaera ludikoa nabarmendu egin dute, aipatutako hizkuntza-trantsizio hori modu naturalean egiteak saioen ludikotasunak eragiten baitute. Askotan gainontzeko ikasgaietan euskara modu formalagoan jasotzera ohitu dira eta bertsolaritzak euskararekin jolastu eta gozatzea eragiten die; modu honetan laburbiltzen du Peru Abarrategik aipatutakoa:

“Esan bezala ikasleek euskara era ludiko batean jasotzeko oso aukera gutxi dituzte. Bertsolaritza emateko modu honi esker normalean jasotzen duten euskara formalagoan oinarritutako marko hori alboratu eta geureganatu egiten ditugu ikasleak. Modu ludikoan saiatzen gara: audioak entzutez doinuak ikasten, bertsoak sortzen, gai ezberdinak lantzen, ipuinak bertsotara pasatzen, eskolako

²⁰ <https://bertsoikasgela.eus/info/>

beste kideei abesten... Beraz, esan bezala argi ikusi dut gurean ludikotasunari esker euskara lantzeko modu bikaina daukatea ikasleek, beste oinarritzko ikasgai batzuetan formalagoki jasotzen dute eta.”

Ikasgelak, pertsonak bezala, oso anitzak dira eta bertso irakasle batek mota eta izaera guztietako ikasleekin eramaten ditu aurrera bere saioak. Saio hauetan beharrezkoa da euskararekiko atxikimendu minimo bat izatea eta gaur egungo errealitatean ikasle askok ez daukate hizkuntza honekiko atxikimendu positibo hori. Jarrerari dagokionez, Oihane Pereak uste du ikasle gehienek modu positiboan erantzuten dutela eta atxikimendu hori ez daukaten ikasleek ere buelta ematen diotela ikusi du bere ibilbide luzean zehar: *“euskararen kontrako edo erabileraren kontrako ume horiek ere azkenean euskaraz ondo pasatzea lortzen dute, konturatu gabe hizkuntzaz aldatu eta konturatu egiten dira. Bertsoak gainera euskaraz dira, ez gaztelaniaz eta sortzen den harreman hori neurri batean mantendu egiten da.”*

3.1.1. Euskal kultura

Proiektu honen beste helburu nagusietako bat, euskararen sustapenarekin batera, euskal kultura ezagutzara eramatea eta lantzea izaten da. Bertsoak urte luzez euskal kulturaren adierazgarri handienetakoa izan dira; Oihane Pereak aipatu bezala gure arbasoek bertso zaharren bidez eramaten zuten ezagutzara gure herria:

“Bertso zaharrei esker ez dugu bakarrik bertsolaritza zer den erakusten, gure herriaren historia erakusteko aukera daukagu ikuspegi ideologiko batetik. Gure arbasoek nola bizi ziren, zituzten garai gogorak, garai zoriontsuak, etab. bertsoek erakusten digute.”

Uxue Diaz de Ceriok euskal kulturaren inguruan galdetuta modu honetan erantzuten du: *“behintzat saiatu egiten gara bertsolaritza euskal kantu inprobisatu bat dela ezagutarazten, askok ez baitute jakiten.”* Proiektuak ezagutza nozio minimoak eskaintzen dizkio ikasleari, euskal historian zehar bertsoak existitu eta gaur egunean oraindik indarrean daudela erakutsiz. Edozein aurrera pauso txikia den arren asko balio du; bertsozaletzeko lehengo pausoa bertsolaritza zer den jakitea da.

Hau hobeto ezagutzeko honako adibidea jarri zuen Uxuek: *“Gure lanaren bidez bertsolaritza ikusarazten diegu; Gasteizko jaietan adibidez Aihotz plazatik pasa eta bertsolariak ikustean zertan ari diren ulertzeko, txapelketak eta kaleko saioak daudela ezagutarazteko...”* Aurrera

pauso txikia izan daiteke baina pertsona horrek behintzat ingurukoei eragiteko aukera dauka, guraso edo lagunei azaldu eta poliki-poliki jende gehiagorengana hurbiltzeko.

Bestalde, ikasgeletara salto eginez, Jon Ruiz de Pinedok errealitatera gerturatzeko eta gaur eguneko gertakariak hobeto ulertu eta lantzeko bertsolaritza erabiltzen duela aipatzen du. Bere ustez, *“bertsolaritza, Euskal kulturaren parte izanda, bertsolaritza lantzen den heinean kultura ari zara lantzen. Bertsoak sortzen eta lantzen ari garenean egia da kultura lantzeko aukera dagoela, bertsoak entzun egiten baitira. Gai ezberdinak lantzen ditugu bertsoekin eta hauei esker, nire kasuan, errealitatera salto egin eta gai horiek egunerokoarekin lotzeko baliatzen ditut.”*

Hauek egokiago lantzeko Jonek aipatu egiten du beharrezkoa zaiola irakasleari Arabako herri edo eskualde bakoitzeko kultura lokala gainetik ezagutzea. Kultura hori aprobetxatuz ikasleengana hurbiltzeko eta eurak modu entretenigarri eta motibagarrian lanean egoteko aukera dago. Jonek adibidez: *“euskara gaia hizkuntza minorizatuen kontura hurbiltzeko erabiltzen dut edo Santa Agedan askotan bertsoak sartu eta kantatzeko”*.

3.1.2. Oinarri eskasa:

Euskararen aldeko hautua eta sustapen nahiz erabileraren aldeko jarrera positiboa handitzen ari den arren Oihane Perea nahiko larrituta dagoela aipatu du gaur egungo ikasleen hizkuntza oinarriarekin. Bere hitzez, modu honetan laburbiltzen du gaur egungo egoera:

“Ikasleak inoiz baino kultura oinarri baxuagoarekin datoz; bai doinu, errima, kultura orokorraren aldetik.. galera handia egon da. Lehen ikasle askok zekizkiten "maritxu nora zoaz" edo "Orioko balea"-ren kantak eta gaur egun euskal kulturaren oso ezagutza urria daukate. Lehen irakasleek zein gurasoek bultzatu egiten zituzten horiek ikastera baina gaur egun ez dugu ezta hori lortu ere. Gure aldetik, beste abiapuntu batetik hastea suposatzen digu. Kontua ez da kantaren bat edo beste jakitea, gehienek ez daukate errimaren noziorik; ez dakite errima bat ere zer den.”

Oihanek eskoletako eta hezkuntza mailako eragile ezberdinek kontuan hartu beharreko arazoa dela uste du, bide honetan jarraituz gero euskal kultura desagerrarazteko arrisku handia ikusten baitu. Bere ustez, hau ez da bertsolaritzarekin lotutako kontua; edozein hizkuntzaren jabeakuntzarekin loturako kontua da eta oinarri horiek zaindu egiten ez badira ikasleak ez dira gai izango edozein hizkuntza ikasteko. Azkenik, kontu hau guraso

askoren ardura ere badela nabarmendu du, hauek baitira egunerokoan ikasle horiek hezteko arduradun nagusienak.

3.2. MUSIKA

Egitasmoaren edukietan aipatu egiten da musikaren erabilera handia dela proiektuan zehar. Bertsolaritzak betidanik izan du harremana musikaltasunarekin; izan ere, bertso guztiek doinu zehatz bat daukate eta bertso horiek erritmo zehatzen barruan kantatzen dira, bai bertsoak kantatu egiten dira.

Musikak balore eta gaitasun asko eskaintzen dizkie ikasleei; Peruk modu honetan laburbiltzen ditu: *“bertsotan egiteko doinuak ikasi behar dira eta ikasleentzat oso motibagarria den arloa da hau. Kantatuz gozatu eta askatu egiten dira eta musika baliabide gisa erabiltzeak asko laguntzen du.”*

Izan ere, bertsolaritzan musikak eragina duen arren Lehen Hezkuntzako etapan baliabide gisa erabiltzen dela ikusi da. Musikak ikasleei motibatzeke aukera ematen die, ezagunak dituzten kantuei letra aldatu edo aurrez ezagutzen zituzten kantak bertso zaharretatik eratorritakoak direla konturatzen dira. Uxue pauso bat haratago joan eta publikoa sartzan du zakuan; ikasleekin emanaldi ezberdinak egiten saiatzen dira eta horrek ikasleengan konpromiso eta ardura minimo bat hartzea suposatzen die. Uxueren arabera, *“ikasleek kantatzen ikasten dute, publiko aurrean, entonazio egokiarekin... Askok ere entsaiatzen ikasi egiten dute, jakin badakitelako publiko aurrean modu egokian bertsoak botatzeko egokia dela doinua ondo ezagutzea eta entonazio egoki batean lantzea.”*

Beraz, argi dago musika baliabide egokia dela ikasleen interesa piztu eta motibazioa handitzeko. Jonen ustez puntu gehigarria da irakasleak musika instrumentua ikasgelara eramane eta zuzenean haiekin jo eta kantatzea. Zuzenean jotzen denean erakargarriagoa egiten zaie eta bertso bat sortzeko prozesu osoa ezagutzen dute.

Jonek musikaren bidea erakartzeko eraginkorra dela argi ikusten duen arren zalantza handiak izaten ditu normalean kontu honekin: *“bertsoa erakargarriagoa egiten diegu baina berez errealitatean produktu hori ez da horrela. % 95 batean bertsoa ez da musikatua eta hortxe agian tranpa egiten dugula esan daiteke.”* Hala ere, bere ustez musikaren baliabidea tranpa bezala hartu ordez aukera bezala hartzea hobeto dagoela uste du. Irakasleak bertso mundura hurbildu ostean jarraitu nahi duenak eta motibazioa duenak jarraitzea erabakiko du errealitatea zein den ezagututa.

3.3. LUDIKOTASUNA

Hezkuntza komunitatearen aurrean “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektua izaera ludikoan eta jolasean aritzeko tresna moduan aurkeztu izan da. Elkarrizketatu guztiek nabarmendu dute proiektu honen helburua ez dela azterketak egin eta ikasleak ebaluatzea, bai ordea modu ludiko baten bidez ikasleei bertsolaritza hurbildu, ezagutu eta euskara sustatzea.

Oihane Pereak dio azterketarik ez dutenez presiorik gabe lan egiten dutela eta ikasleek beste zenbait irakasgaitan modu lasaiago eta entrenigarriagoan lantzeko zailtasunak dituzten arren talde lanean gozatzera etortzen direla.

Peru ere jakitun da gaur egungo hezkuntzan jolasari eta ludikotasunari oraindik ez zaiola behar bezalako garrantziarik ematen. Proiektu honen garrantzia modu honetan azpimarratzen du:

“Esan bezala ikasleek euskara era ludiko batean jasotzeko oso aukera gutxi dituzte. Bertsolaritza emateko modu honi esker normalean jasotzen duten euskara formalagoan oinarritutako marko hori alboratu eta geureganatu egiten ditugu ikasleak. Modu ludikoan saiatzen gara: audioak entzutez doinuak ikasten, bertsoak sortzen, gai ezberdinak lantzen, ipuinak bertsoara pasatzen, eskolako beste kideei abesten...”

Azkenik aipatu beharra dago Bertsozale Elkarteak gaztetxoak bertso mundura gerturatzeko ematen dituen pauso guztiak ludikotasunarekin eta jolasarekin lotuta daudela, baita aisialdiarekin ere. Ondoren aipatuko den “Zubi lana” atalean hobeto azalduta agertuko da.

3.4. METODOLOGIA

Hezkuntza orokorrean etengabeko aldaketan dihardu eta metodologia berriak lantzen hasiak dira eskola ezberdinetan. Gehienek ikaslea erdigunean jarri eta parte hartze aktiboaren bidez metodologia tradizionala alboratzen saiatzen ari dira. Elkarrizketetan ere bertsolaritza aldaketa fase baten barruan sartuta dagoela ikusi da.

3.4.1. Inprobisaziora aldaketa

Bertsoak nola sortu gaur egun arte gehienetan paper eta boligrafora mugatu izan da baina gaur egunean, Uxuek azaldu bezala, aldaketa prozesu batean sartuta daude:

“Autoformazioen fasean ere sartuak gaude une honetan eta gure kabuz egiten ari garen arren agian beharrezkoa izango dugu kanpoko adituren baten laguntza. Une honetan Euskal Herriko eragile batekin ari gara (Mikel Artolarekin) eta bere master amaierako lanarekin bat eginda hausnartzen ari gara nola bere garaian ahoskotasunaren bidez ematen zen transmisioa eta ez horrenbeste paper eta boligrafoaren bidez. Hori dela eta, gureganatu eta eskoletako errealitatera moldatzen saiatu gara ikas-liburuetan aldaketak eginez eta gure jarduna moldatuz.”

Aldaketa honek eskemak apurtu zizkion Peru Abarrategiri; txikitatik betiko metodologian bertsoak sortzen ikasi du eta aurten irakasle lanetan sartzekoa zenean ere berdin hastea zuen asmoa. Hemen bere testigantza:

“Bertsozale Elkartetik bultzatuta gurera Mikel Artola etorri zen saio bat ematera eta niri behintzat eskemak apurtu zizkidan formakuntza izan zen. Izan ere, nire bertsolari hastapenetan eta urte askotan erakusten ibili naizen hortan hasieran paper eta arkatzarekin idazten ikasi izan dugu. Mikelek, ordea, erakutsi zigun Bertsozale mundua inprobisazioan oinarritutako jarduna dela eta aberasgarria dela hau ere bertsolari gazteengana hurbiltzea. Papera eta arkatza ahaztu eta hasieratik inprobisazioan oinarritutako saioak ematea onuragarria izan daitekeela konturatu nintzen. “

3.4.2. Baliabide Digitala: “Bertso Ikasgela”

Gaur egungo eskola guztiek dituzte arbel digitalak ikasgeletan eta gizartea teknologizatu den moduan bertsolaritzak ere bide hori hartu du. Testuinguru berri horren aurrean

Bertsozale Elkartek “bertso ikasgela” plataforma digitala martxan jartzea erabaki zuen. Pare bat urte bakarrik daramatzatenez Euskal Herriko irakasle guztien artean elkarlanean sortzen ari dira web-gunea; Peruk modu honetan lanean dabiltzala aipatu du: *“lurralde bakoitzeko irakasle ezberdinei inprobisazioan oinarritutako ariketa pare bat sortzeko eskatu egin ziguten eta horretaz gain probintzia bakoitzeko irakasle talde ezberdinei pare bat jolas asmatzeko. Plataforma digital hau oso berria denez orain hortan gabiltza materiala sortuz ondorengo urteetan gauden eta datozen irakasleentzako baliogarria izan dadin.”*

Jonek “bertso ikasgela” barrutik ezagutzeko aukera luzatzen du: *“bertso saio ezberdinak eskuratzeko aukera ere badago eta eguneratzen doa etengabe. Bertso jolasak ere topatu daitezke. Plataforma honetan zati bat irakasleentzat zuzendutakoa da, itxia dena. Beste zati bat eskoletako ikasle eta irakasleentzat sortutakoa da, materiala eskura izan dezaten.”* Beraz, guztia sarera igotzeko eta nahi denean eskura izateko aukera da web-gune honen abantailarik handiena, bai ikasle zein irakaslegoaren artean eduki ezberdinak ikusi eta partekatzekoa.

Lau irakasleek asko erabiltzen dute “bertso ikasgela” plataforma digitala, baina laurek ez dute liburua oraindik alboratu. Peruren arabera liburuan eduki asko sortuta dago eta nahiko kontu interesgarriak agertzen dira; berak noizbehinka ariketa ezberdinak hautatu eta praktikan jartzen ditu liburutik. Uxuek aipatu egiten du liburua ondo etortzen dela teoria eskura izateko, bertso baten egitura nolakoa den ikusteko eta nohizbekinka inprobisaziora jotzen bada ere bertsoren bat idazteko ere. Uxuek dioen moduan *“liburuak beti altxor!”*. Hala ere, Ohianek uste du etorkizunean aldaketa bat emango dela eta guztia modu digitalean emango dutela, hezkuntzak gaur egun bide hori hartua baitu.

3.4.3. Arabako eskualdeak

EUSTAT, Euskal Estadistika Erakundearen datuen arabera²¹, azkeneko urteetan EAEn asko handitu da euskararen ezagutza Araban, geroz eta biztanle gehiago gai dira euskara ulertzeko. Araba bera oso anitza da eta euskarak presentzia ezberdina dauka eskualde ezberdinetan.

Eskualde bakoitzaren errealitatea ezberdina den arren lau elkarrizketatuak bat datoz metodologiaren gaiarekin. Eurek ez dute euren metodologia normalean euskararen ezagutza edo hizkuntza mailagatik aldatzen, tokian tokiko ikasleen ezaugarrien arabera

²¹ https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_879/opt_0/typo_1/ti_Euskararen_ezagutza_maila/temas.html#el

aldatzen dute. Oihane Perek errealitate ezberdinak ezagutu ditu 20 urteetan zehar eskualde ezberdinetan: *“herri gehienetan euskara maila oso altuko ikasleak izan ditut, baina baita oso oso maila baxuko ikasleak ere... Saioak moldatu egiten dituzu ikasle bakoitzari zeozer aportatzeko.”*

Uxue ere bat dator horrekin eta bere ustez gidoi finko bat zehaztuta badute ere lekuaren arabera egokitzen joaten dira. Ez bakarrik eskualde edo herriaren arabera, herri bateko eskola edo ikasgelaren arabera ere aldaketa handian daudela nabarmentzen du. Uxue haratago doa eta uste du oso zaila eta erreala ez den arren saioa emateko modua ikasle bakoitzaren behar eta gaitasunen arabera eman beharko litzatekeela.

Jonek argi dauka metodologia aldaketa hori ez dela hizkuntza maila edo gaitasunetara mugatu behar, askotan aipatu bezala proiektu honen xedea ondo pasatzea da. Modu honetan aurkezten du bere testigantza: *“ez da horrenbeste euskararekiko duten ezagutza edo atxikimenduan izaten baina bai interesetan, mailara ere noizbehinka egokitu behar garen arren. Beraz, nire klaseak interesen arabera moldatzen ditut eta euskararen mailari garrantzia gutxiago ematen diot.”*

3.5. KOMUNIKAZIOA

Betidanik bertsolaritza komunikazio bidea izan da eta kantuaren zein bertso idatzien bidez mezu bat transmititzea izan da helburua. Gure arbasoek, frankismo garaian bertso zaharrak erabiltzen zituzten garaiko pentsamendua eta ideologia kantuaren bidez helarazi eta zabaltzeko.

Gaur egun, bertsoen bidez berdin jarraitu egiten da. Formatu ezberdinak dauden arren bertsolariek normalean gai baten, pertsonaia baten edo egoera baten inguruan kantatu egiten dute. Komunikazio bide horretan kokatzen dira ikasleak eta bertso irakasleak.

3.5.1. Ikasleak

Bertsolaritzak asko eskaintzen dio ikasleari eta komunikatzeko tresna eta baliabideak ezagutu eta praktikan jartzeko aukera ematen du. Uxue Diaz de Ceriok nabarmendu egiten du bertsolaritzak sozializazio prozesuan sortu dezakeen eragina. Ikaslea gizartea ezagutzen laguntzen du, errealitatearen jakitun izaten. Ikasten eta lantzen dituen komunikazio bide horiek ondoren errealitatean edo egunerokoan praktikan jartzeko aukera izaten dute.

Uxuek aipatu zuen askotan galdetu izan diotela bertsolaritzak zertarako balio duen, mespretxu handiz askotan. Berak modu honetan azaldu eta erantzuten die normalean pertsona eta ikasle horiei:

“Bertsolaritzaren ezagupen minimo bat izateaz gain zu zeu pertsona bezala hezteko; publiko baten aurrean nola jardun erakusteko, horrenbeste ez urduritzeko, inprobisatzen jakiteko, ideiak antolatzeke, euskara lantzeko, gaitasun sozialak lantzeko... Beldur horiei gainera aurre egiteko tresna bat izaten da.”

3.5.2. Irakasleak

Proiektu honen garrantziarik handiena irakasleek izaten dute eta urte luzez ikastetxez ikastetxe bertsolaritzak zabaltzen iraun badu, neurri batean, irakasleei esker lortu dela esan daiteke. Irakasleen artean komunikazio handia eman da eta hau guztiaren ardura formakuntzek eta bilera ezberdinek hartzen dute.

Irakasle guztiek aipatu dute Arabako errealitatea onuragarria dela eurentzat. *“Arabako bertso munduan lanean dabiltzan guztiak dira ezagunak eta denak familia giroan ibiltzen gara”*, aipatzen du Uxuek.

Bestalde, familia giro hori aprobetxatuz, honako lanak egiten dituztela nabarmentzen du Oihanek irakasle bilera horietan: *“orain arte uda bukaeran edo Irailean bildu izan gara baina azkeneko urteetan urte osoko jarraipena egiten saiatzen ari gara, irakasle taldea bildu eta talde terapia eginez: zer egin den hausnartu, egin daitekeena begiratu, elkar zaindu...”*

Azkenik, bereziki onuragarriak egin zaizkie bilera mota hauek bi irakasle gazteenei, Peruri eta Joni. Duela zenbait urte bertso irakasle lanak utzi zituen Jonek bereziki gogoratzen ditu garai haiek:

“Nire kasuan formakuntza formal hori ez da izan garrantzitsuena; bai ordea irakasle ezberdinen artean sortutako laguntza saretxo hori. Araba mailan oso irakasle gutxi ginen eta ondo eramaten ginenez ostiraletan bildu egiten ginen jarduna komentatzeko eta horren inguruan hitz egiteko, baita beste gauzetarako ere. Nire kasuan, une horiek aprobetxatzen nituen neuzkan zalantzak galdetzeko eta konpartitzeko.”

3.6. ZUBI LANA

Tamalez, bertsolaritzak ez dauka beste kultur adierazpide ezberdinek izan dezaketen indarra; hau guztia dela eta bertsozaletze prozesua ez da oso erraza izaten. Uxueren arabera, bertso mundura edo bertso-eskoletara hurbiltzeko fase ezberdinak igarotzea beharrezkoa da: hezkuntza araututik aisialdira (udaleku, bertso paper lehiaketa, bestelako saioetara) eta aisialditik bertso eskoletara. Araban bereziki, Uxuek nabarmendu izan du parakaidista ezberdinak izan direla eta hauek modu aleatorioagoan iritsi direla bertso mundura baina bere ustez *“ikasleak aisialdiaren bidez bertsozaletu behar da eta ondo pasatze horrek piztu dezake bertso munduan jarraitzeko aukera.”*

Oihanek garaiak zeharo aldatu direla aipatzen du berriz ere: *“gizartea asko aldatu da eta gaur egun ikasleek aisialdiari lotutako kontu pila bat dituzte eskura. Lehen gizartea kolektiboagoa zen eta eskaintza bera ere xumeagoa zenez aski izaten genuen klaseetatik pasadatxo batzuk eman eta ikasleak gurera gerturatzeko.”* Bertsolaritza bigarren plano batean geratu da, lehentasuna askotan kirolean jartzen baitute gurasoek.

Baina modu berean Bertsozale Elkartetik lan handia egiten ari direla aipatu du bertsolariak azkeneko urteetan: *“saiatu egiten gara hezkuntza arautuetaz kanpo aisialdiarekin lotutako ekintzak sortzen; bertso-lehiaketak, bertso-paper lehiaketak, udalekuak eta barnetegiak... Modu honetan bertso munduko jendea ezagutu egiten dute eta bertso eskolak nola funtzionatzen duten ikusten dute. Batzuk geratu egingo dira eta beste askok alde egin, baina aukera hori bermatu egiten diegu.”*

Jonek ere nabarmendu egiten du Bertsozale Elkartearen lana; bai Araba bai Euskal Herri mailan eskaintza hauei esker gaztetxoak bertsozaletzea lortzen ari da, mundu honetatik gertuago edo interesa duten horiei eskaintza hauen bidez bultzada eman eta guztiz bertsozaletzeko. Honen guztiaren adibide aipatzen du azkeneko 5 urteetan 18 urtetik beherakoen zenbait bertso eskola berri sortu izan direla Araian, Arabar Errioxan eta beste zenbait lekutan.

3.7. ERAGINKORTASUNA

Gehienetan proiektu bat funtzionatzen duen edo ez jakiteko proiektu horren emaitzei erreparatu behar zaie. “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuak, ordea, ez du bere jarduna datu edo emaitza horietara bideratzen. Aipatu bezala helburua ikasleengana jo eta bertsolaritzaren ezagutza minimo bat era ludikoan eta euskararen sustapenaren bidez ematea da. Bigarren plano batean geratuko litzateke jendea bertso-eskoletara eramatea.

Peru Abarrategi gazteak oso argi azaldu zuen bere elkarrizketan: *“oso zaila da bertsolaritza zer den ez dakiten klase batera sartzea eta 15 saioetan 20 ikasletik 15 bertso-eskoletara salto egitea. Baina beti egongo dira bi-hiru ikasle kili-kilia izango dutenak eta jakinmin horrek bertso modura hurbilduko dituenak. Eta ez dute beti bertsolari izan behar, bertsozale, gai-jartzaile, epaile... ere izan daitezke”*.

Salto hori ematen duten ikasleei baldintza egokienak ematea da Bertsozale Elkartearen beste arduretako bat. Horretarako, aurreko puntuan aipatu bezala egitasmu ezberdinak daude martxan urte osoan; formatu, iraupen eta konpromezu ezberdinekoak dira eta gaztetxoak bertso mundura hurbiltzeko balio dute. Oihane modu honetan laburtzen du honakoa: *“modu honetan bertso munduko jendea ezagutu egiten dute eta bertso eskolak nola funtzionatzen duten ikusten dute. Batzuk geratu egingo dira eta beste askok alde egin”*.

3.7.1. Hizkuntza Hautua:

Bertsolaritzaren egoera kanpotik ikusita gaztetxoak txikitatik bertsozaletzea izaten da ohikoena, eskolan edo familiatik zaletu eta bertso-eskoletara saltoa ematea. Azkeneko urteetan, ordea, Oihane konturatu egin da Arabako errealitatean bertso mundura salto egiteko gakoetako bat hizkuntza hautuarekin lotuta dagoela:

“Hamar urteko ziklo bat ematen ari dela konturatzen ari naiz; Lehen Hezkuntzan bertsolaritza jaso zuten ikasleek eta une horretan hontaz paso egiten zuten horiek denborarekin gurera hurbildu egin direla. Baliteke hizkuntza hautuarekin lotura egotea, giro gaztearekin edo agian euskaraz bizitzeko alternatibekin ere.”

Miraririk egiten ez duten arren Oihane ziur da euren lanak gazte horiengan eragina izan dezakeela. 18 bat urterekin gazte askoren buruarengan “txip” aldaketa bat gertatzen da

euskararen errealitatearen egoeraren jakitun direlako eta bertsolaritzak mundu euskaldun, jator eta gazte batera hurbiltzeko aukera ematen die gazte hauei.

3.8. ETORKIZUNA

Egitasmoa sortu zenetik aldaketa asko jasan izan ditu eta hasieran zehaztutako helburuak lortzen joan diren heinean helburu berriak zehazten joan dira. Lau elkarrizketatuak nahiko baikorrak direla argi utzi dute proiektuaren iraupenari dagokionean.

Uxueren ustez, azkeneko 15 urteetan fruituak jaso direla ikusi du; ez bakarrik bertsozale munduan, hezkuntza munduan ere, edonork duelako bertsozaritzaren nozio minimo bat.

Jonek proiektuak etorkizun oparoa duela uste du eta berriz nabarmentzen du ezin dela hutsik egin zubi lan horretan, benetan ikasleak bertsozale nahi badira hor baitako gakoak.

Bestalde, Peruk salto handi bat ematen du eta etorkizuna oparoa dela uste badu ere gaur egungo egoera larria azaleratzen du. Gaur egungo gizartea oso tematuta dago emaitzekin eta berak honako beldur hau dauka:

“Beldurra ematen dit, lehen aipatu moduan, proiektua zenbakietara bideratzea. Gauza da urte batean zubi lan horretan 20 pertsona izan daitezkeela mugitukoak eta beste urte batean 5 ikasle. Horrek ez du esan nahi 5 ikasle mugituko urte horretan proiektuak bere eraginik edo lanik egin ez duenik. Guztiei ezin zaie bertsozaritza gustatu eta urte batean batzuk aterako dira eta beste batean beste batzuk.”

Arazoak kontziente izanik emaitzen zenbakiak begiratu ordez kalitateari erreparatu behar zaiola uste du Peruk, bertsozaritza zer den ezagutarazi eta euskara kantuaren bidez landuz ordu politak igarotzea.

3.8.1. Diru Laguntzak

Tamalez proiektu honen finantziaketa instituzio publikoengandik iristen da eta azkeneko urteetan hobera joan bada ere proiektuak hutsune handiak dituela uste dut Uxuek. Hutsune horiek gehien bat gehiago ezin zabaltzera lotuta daude; diru nahikorik ez dagoenez udalek ezin dituzte hauek finantziatu eta ikasle asko geratzen dira oinarri minimoa jaso gabe.

Oihaneren arabera gaur egungo proiektuaren nondik norakoa udaletxeekin daukaten harremanean dagoela eta hauskor samar ikusten du harreman hori. Hau gutxi balitz, beldurra dauka Covid 19 birusak sortutako egoera eta iritsiko den krisiak horrelako proiektuak kaltetuko ote dituen edo ez, azken finean udaletxeen diru-laguntzei esker iristen dira ikastetxe ezberdinetara. Berak dioen bezala proiektua tipula baten kanpoko geruzan dago eta egoera honetan kontuan hartzeko boletu gutxi ditu. Egoera hau saihesteko uste du curriculum ofizialaren barruan txertatu beharko litzatekeela proiektua, modu honetan ez luke diru-laguntzen beharrik izango.

4. PROPOSAMENA:

Ondorioen atalean aipatu bezala “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuak gaur egun bizi duen egoera ezagutzeko beharrezkoak izan dira lau irakasle ezberdinen testigantzak biltzea (ikusi “eranskinak” atala). Elkarrizketa horietan proiektuaren nondik norako gehienak jorratu dira; hala nola, proiektuaren helburuak, metodologia, gaur egungo errealitatea, etorkizuna, baliabideak, etab. Bildutako informazio horrekin egitasmoaren ardatz ezberdinak identifikatu dira eta ardatz horien inguruan ondorio desberdinak atera dira.

Ondorio horietariko batzuk egitasmoaren indargune nagusi direla antzeman da. Proiektuaren izaera ludikoak euskararen sustapenean eta erabileran eragiten du zuzenean, euskararekin jolas eginez ondo pasatu eta gozatzeko. Bestalde, inprobisazioan oinarritutako metodologia aldaketa horrek ikasleen motibazioan eragin zuzena izan du. Ikasleek modu aske eta naturalean adierazteko eta komunikatzeko aukera eman zaie, bertsoen bidez barruan dutena komunikatzeko aukera bermatuz. Zer esanik ez baliabide digital berrien agerpenarekin; izan ere, “bertso-ikasgela” bezalako baliabideek ikasleen motibazioa handitzeko pauso handia suposatu dute eta bertako material anitz eta ugariak ikasleak ez aspertzeko aukera bermatu dute. Azkenik, bertsolaritza musikalki jorratzerakoan modu positiboan eragiten dela ikusi da; motibazioaz gain ikasleak erraztasun handiagoz askatu egiten dira eta errazagoa da musikaren bidez errealitateko gai ezberdinetara hurbiltzea.

Baina elkarrizketa horietan bildutako testigantzetan ere proiektuaren zenbait ahulezia azalatu dira, edozein egitasmok beti baitu hobetzeko alderdiren bat. Ahulezia horiek gaur egungo gizartearen noranzkoarekin eta orokorrean hezkuntzaren errealitatearekin bat doazela ikusi da. Izan ere, Oihane Pereak argi utzi du egungo ikasleak geroz eta oinarri kulturak baxuagoarekin datozela eta kultura galera hori gehien bat euskal kulturaren ezagutza faltarekin identifikatzen duela. Proiektu honek euskal kulturaren transmisio horretan modu positiboan eragiten du baina egitasmoak beharrezkoa du ikasleek oinarri minimo batekin hastea; bestela egitasmoaren abiapuntua beste bat izaten da eta denbora handiagoa behar da helburuak eskuratzera heltzeko.

Bestalde, beste oztopo nagusietako bat finantziazioa iturria da; proiektu honen biziraupena instituzio publikoen menpe dago, hots, udaletxeen edo Eusko Jaurlaritzaren menpe. Bertsozale Elkarteak bere esku dagoena egiten saiatzen da baina Euskal Herriko

ikastetxe gehienetara iristeko diru laguntzak beharrezkoak izaten dira. Horrek ezjakintasun batean kokatzen du etorkizuna eta bihurtzen du proiektua hauskorragoa.

Hala ere, oztopoak oztopo proiektuaren helburua argia da: modu ludiko batean euskararen sustapenean eta erabileran eragitea, bertsolaritza etxe guztietara helduz eta ahal den neurrian ikasleak bertsozaletuz. Pauso horiek jarraitu ostean gehiago elikatu eta gerturatu nahi den ikasleak aukera izango du bertso-eskoletara hurbildu eta bertsolaritzaz gozatzeko.

4.1. NIRE PROPOSAMENA

Testigantzei esker informazio baliagarria biltzeko aukera izan dut eta proiektuaren indarguneak eta ahuleziak agerian geratu dira. Nire proposamena indarguneak mantentzeko eta ahulezia horiek hobetzeko saiakuntzan oinarrituta egongo da, jarduera baten bidez saiatu egingo naiz ahulezia horiek hobetzen identifikatutako oztopoei aurre eginez.

4.1.1 Justifikazioa

Jarduera honen diseinuan garrantzitsua da egitasmoaren helburua argi eta garbi ezagutu eta kontuan hartzea. Izan ere, ikastetxeetan ematen den bertsolaritza ez da bertso-eskoletan ematen den berdina eta abiapuntua ezberdina dela argi dago. Hori dela eta, bertsolaritzaren ezagutzaren hasierako nozio puntuetan zentratuko dut jarduera, egitasmoarekin hasi berri den Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasgela bateko lehengo hilabeteetan, hain zuzen.

Testigantzetan argi geratu da gaur egungo ikasle gehienek geroz eta oinarri kultural baxuagoarekin heltzen ari direla bosgarren mailara. Arazo hau kontuan hartuz eta bertsolaritzak oinarri kultural horrengan sortu dezakeen eragina ikusita nire jarduera arazo hori hobetzeko bidean kokatuko dut. Bertsolaritzan bertso bat sortu eta kantatzeko beharrezkoa izaten da doinu baten oinarrian kokatzea; hau da, doinua ezagutzea eta doinu hori kantatzen jakitea.

Bertsolaritzaren hasierako ezagutza horietan beti erakutsi egiten zaie bertso bat zer den eta bertso horrek dituen osagai ezberdinak identifikatzen: doinu ezberdinak, errimak,

metrikak, etab. Beraz, gehienetan lehengo pausoetako bat doinu ezberdinak ezagutzea izaten da eta horretarako euskal kulturaren historiako bertso doinuetara errekurritu egiten da: “Orioko balea”, “Maritxu nora zoaz”, “Aita- semeak”... Doinu ezagun hauek abiapuntu moduan erabili egiten dira, gehienetan ezagunak egiten baitzaizkie.

Gaur egun ordea, agerian geratu da doinu ezagun hauek ez direla ikasle askorentzat horren ezagunak eta galera hori aurre egiteko doinuak ikasteko jarduera bat proposatuko dut. Batetik, euskal kulturaren inguruko ezagutza maila handitu eta aberasteko; eta bestetik, bertsolaritzara eta bertso baten sorkuntzara hurbiltzeko beharrezkoak diren doinuak ikasten joateko.

4.1.2. Helburuak

Jardueraren justifikazioa eginda ariketaren helburuei helduko diet; izan ere, zeharka bada ere jarduera honetan proiektuaren beste zenbait alor eta estrategia erabiltzeko aukera dago. Hauek izango dira jarduera honen helburu nagusiak:

- Euskal Kulturaren ezagutza maila handitzea, euskal doinu tradizionalak ikasiz, bertso ezberdinak kantatzeko gai izateko.
- Euskara sustatzea, ludikotasunean oinarritutako jolasaren bitartez, bertso baten sorkuntzaren lehengo pausoak ematen hasteko.
- Baliabide digitalak erabiltzea, doinu ezberdinak eskura izanez, askatasun osoz eta presiorik gabe euren erritmoan doinuak ikasteko.

4.1.3. Jardueraren deskribapena

Aurrez aipatu bezala jarduera hau egitasmoaren lehengo urratsetan jorratzeko proposatuko dut. Normalean ikasleak bertso bat zer den ikasten ari dira eta bertsoetara hurbiltzeko lehengo pausoetako bat doinuak ikastea izaten da. Egungo ikasleek doinuen ezagutzarekin lotutako gabezia handia dutenez jarduera honi esker gai izango dira erritmo ezberdinetan doinu ezberdinak ikasten joateko.

Jarduera hau bi saio ezberdinetan eramango da aurrera. Lehengo egunean irakasleak doinuetara hurbilketa bat egingo du eta denon artean doinuak ikasten hasiko dira.

Bigarren egunean, ordea, libreki kantatzen utziko die, bakoitza bere erritmoan doinuekin jolas eginez.

+ *Lehenengo saioa:*

Lehenengo saio honetan ikasgelako arbel digitalean irakasleak “bertso ikasgela” web-gunea irekiko du eta bertan bertso bat jarriko die ikasleei. Hasieran doinu horiek ezagunak izatea da gomendagarriena, edo behintzat euskal kulturaren baitan ezagutza maila handiagoa dutenak erabiltzen hastea; ondoren beste batzuk ezagutzen hasiko baitira. Arbelean, puntuz puntu, bertsoa idatzita egongo da eta irakasleak “play”-ari ematen dionean audio baten bidez bertsoa entzuteko aukera izango dute denon artean kantatzen duten bitartean. Prozesu hau nahi adina aldiz errepikatu daiteke, doinu berdinarekin edo beste berriago entzunda. Horretarako, aurrez irakasleak bost edo hamar bertso doinu hautatu eta karpeta batean sartuko ditu.

Prozesua zenbait aldiz errepikatu ostean, saioaren bigarren zatian, ikasle bakoitzari bere ordenagailua ateratzen utziko zaio “bertso ikasgela” web gunera sartuta irakasleak sortutako karpeta sartuz. Bakoitzak bere entzungailuak belarrietan sartu ahalko ditu eta nahi duen moduan hamar-hamabost bat minutuz doinu ezberdinak entzun eta kantatu. Helburua bertsoak entzunez doinuei hurbilpena egitea da, ikasleek doinua gertukoa izatea.

+ *Bigarren saioa:*

Bigarren saio honetan aurreko saioan landutako doinuekin jolasean jarraituko dute. Irakaslea bigarren plano batean geratuko da eta pare bat azalpen emanda ikasleen lana izango da saioa aurrera eramatea.

Horretarako, “bertso ikasgela” web-gunera sartu beharko dira euren ordenagailuekin eta irakasleak sortutako bertso doinuekin karpeta aurreko eguneko doinu berdinekin topatuko dituzte. Bertako doinuekin aldagai ezberdinak izango dituzte, aukera ezberdinekin: doinuaren letra pantailan idatzita eta letra entzuteko aukera, doinuaren letra pantailan idatzita eta letrarik gabe entzuteko aukera, eta doinua motelago entzuteko aukera.

Aukerak ikusita eta bost-hamar minutuz probak eginda bikoteka edo hironaka jarriko dira. Saio honen helburua inprobisatzen hastea izango da; entzungailuen bidez doinua letrarik gabe entzun eta euren nahi dutena esanez doinua kantatuko dute. Hasierako fasean murgilduta egongo direnez ez ditugu behartuko bertso horietan hitzak errimatzeraz, ezta metrika baten barruan zehatz-mehatz silaba kopurua kontatzeraz. Aipatu bezala, saio honetan zehar modu askean ibiliko dira, taldeka eta euren erritmoan bertsoak osatzen hasi daitezkeen, nahi duten gaia aukeratuta. Gai horiek honakoak izan daitezke, adibidez: egun horretan egindakoa, atzo bazkaldu zutena, kirol batean egiten dutena, gertatu zitzaizen gertakizunen bat, kolorean zerrendatuta... Irakaslea ondoan edukiko dute laguntza emateko prest eta euren galderari erantzuteko prest, arduraz ikasleek hartuko dutelarik.

Saioa asko luzatzen ez bada, amaieran, ikasleren bat ikaskideen aurrera atera daiteke nahi duena kantatzeraz; beti ere doinu baten gainean kantatuz. Ikasleek primeran pasako dute eurek izango baitute kontrola eta sortuko den giro hori lagungarriagoa izango da etorkizuneko saioei begira, errimatzen edo metrikari hitzak kokatzen hasten direnerako.

Laburbilduz, bi saioetan oinarritutako jarduerak honek lan honetan bildutako erronkei aurre egiteko balioko du; identifikatutako arazoak ebazteko jarduerak xume baina interesgarri baten bidez. Euskara modu ludiko batean landuko da eta baliabide digitalei esker euren interesa handitu egingo da. Gainera, inprobisaziora egingo dute salto; errimak eta metrika alde batera utzi eta metodologia aldaketa horretan murgilduko da jarduerak. Azkenik, jarduerak honi esker irakaslea bigarren planoan geratuko da eta ikaslea protagonista bihurtuko da; bere ikaskuntza erritmoa errespetatu egingo da eta talde lanean jarduteko aukera emango zaio.

5. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Gradu Amaierako Lanerako gaia aukeratu nuenean ez nuen inolako zalantzarik izan, gai guztien zerrendan bertsolaritzarekin zerikusia zuen gai bat agertzeak asko poztu ninduen. Tutorearekin bildu nintzenean eta gaia “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuaren inguruan jorratzeko adostu genuenean ez nuen espero lan honen dimentsioa horren handia izango zenik.

Izan ere, berrogei orrialdeko lan batean oso zaila da hogeit hamar urte baino gehiagoz ikastetxe ezberdinetan martxan egon den proiektu baten inguruko lanketa bat egitea. Aipatu bezala, hasieran proiektu hau oso mugatua izango zela uste nuen, baina lanarekin aurrera egiten joan naizen heinean konturatu naiz bide nagusitik atera bezain pronto hamarnaka bidexka topatu daitezkeela. Kasu honetan, bide nagusitik tiratuta, proiektuak gaur egunean bizi duen egoera irudikatzen saiatu naiz, bere indarguneak eta ahulguneak identifikatuz.

Orokorrean, proiektua ikaslegoarentzat oso positiboa dela antzeman dut; egitasmoak asko dauka ikasleari erakusteko, baloreetatik hasita pertsona bezala kokatzen laguntzeraino. Eragin positibo hori nahiko argi geratu dela uste dut lan honetan; lau irakasle ezberdinei egindako elkarrizketetan bildutako testigantzek proiektuaren beharra erabat finkatzeko lagundu baitute.

Halaber, lan honen luzeera eta denbora-mugak zeintzuk diren ikusita pena handia hartu dut buruan nituen zenbait ideia ezin sarturik geratu naizelako. Elkarrizketetan bildutako testigantzek proiektuak gaur egunean dituen zenbait ahulezia azalerarazi ditu. Batzuk, egungo gizartearen egoeraren eraginagatik sortutakoak (ikasleen oinarri kultural falta, egoera ekonomikoaren ondorioz diru-laguntza falta...); besteak, inprobisazioan oinarritutako metodologia aplikatzen hasi eta hau indarrez garatzeko dagoen oinarri praktikoa faltagatik.

Lan honetan, ondorioak argi eta garbi adierazi dira, bai positiboak bai negatiboak. Gainera, gaur egunean egitasmoak dituen zenbait hutsuneri aurre egiteko proposamen bat proposatu da, jarduera praktikoa bat zehatz-mehatz. Jarduera hori proposatzerakoan oso mugatuta sentitu naiz. Jarduera horrek egitasmoak dituen zenbait hutsuneri erantzuten die baina erantzun puntuala direla konturatu naiz. Proposamen horrekin ez da erantzun bateratu eta orokorrik luzatzen; proiektuak dituen hutsune horiek asebetetzeko beharrezkoa ikusten dut proposamen luzeago bat sortzea.

Beraz, lan honekin jarraitzeko aukera emango balidate hortik tiratuko nuke. Lan honetan egindako elkarrizketetako testigantzak oso oinarri sendoak dira proiektuak bizi duen egoera zein den identifikatzeko. Testigantza horiek ardatz hartuta sortu diren ondorioak ere nahiko argiak geratu direla esango nuke, baina hobetzeko lan handia dagoela uste dut etorkizunera begira proposatutako ildo horiekin. Modu batean edo bestean, lan honekin alderdi teorikoa finkatuta geratu da eta etorkizunean alderdi praktikoarekin jarraitu beharko litzakete, jarduera eta ekintza egingarriak proposatu eta progresio batean oinarritutako plangintza orokor bat osatuta.

6. BIBLIOGRAFIA

Aizpurua, K. (et al) .(2008). *Bertsolaritzaren Curriculum*. Lehen Hezkuntza. Lanku.

Barandiaran, A. (2015). "Bertsolaritza Eskolan izeneko programa Nafarroako Lehen Hezkuntzan" in Núñez, X. (et al.) (2015). *Horizontes Científicos y Planificación Académica en la Didáctica de Lenguas y Literaturas*, 245-260.

Beitia, I. A. (2013). *Bernard Etxepare:«Doctrina Christiana» y poesía amatoria*. Anuario del Seminario de Filología Vasca" Julio de Urquijo", 44(2), 1-40.

Duffy, T. (2002). *Ikasgelako kultura eta inperialismo linguistikoa*. Ale honetan, 49, 43-50.

Eizagirre, I. (et al.) (2010): *Gu ere bertotan 1*. Euskal Herriko Bertsozale Elkarte, Lanku Bertso Zerbitzuak S. L., Oiartzun.

Paya, X. (2013). *Antología de Literatura Oral Vasca*.

Kontsultatutako web guneak:

<https://bertsoikasgela.eus/info/>

<https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza/sarrera-zer-da-bertsoa>

<https://bdb.bertsozale.eus/orriak/get/16-Bertsolaritzari%20buruz--transmisioa#bertsoeskolak>

<https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza-ikastetxean>

https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_879/opt_0/tipo_1/ti_Euskararen_ezagutza_maila/temas.html#el

<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20120501/gu-ere-bertsotan-eskolan-bertsolaritza-sustatzeko-egitasmoa>

7.ERANSKINAK:

“Bertsolaritza Ikastetxean” proiektua gertuagotik ezagutzeko Arabako ikastetxe ezberdinetan bertsolaritza irakasle diharduten eta bertsolariak diren zenbait pertsonekin galdetegi hau osatu da, proiektuaren nondik norakoak ezagutu eta honetan sakontzeko asmoz.

7.1. Jon Ruiz de Pinedori elkarrizketa

Aurkezpena:

- 1. Lehenik eta behin, nor zaitugu eta zein da bertsolaritzarekin daukazu harremana?**
- 2. Zure kasuan nola sartu zinen bertso mundura? Nork edo zerk bultzatu zintuen?**

Jon Ruiz de Pinedo naiz eta Zalduondokoa naiz, gaur egun Agurainen bizi naizen arren. 17-18 bat urteekin Zalduondon bertan bertso eskola bat sortzeko aukera sortu zen Lautadako beste zenbait gertuko lagunekin batera eta apuntatu egin nintzen. Zenbait bertso eskolara joan ostean bertsozaletu egiten hasi nintzen eta hortik aurrera bertso saio ezberdinak entzutera animatu nintzen. Giroa eta jendea ezagutzen joan nintzen heinean Bertsozale Elkartearen jarduna hurbilagotik ezagutzeko aukera izan nuen eta handik urte batera elkartean sartzea erabaki nuen. Bolondres lanetan ere ibili izan naiz eta antropologiako karrera amaitzeko burutu behar nituen praktikak Euskal Herriko Bertsozale Elkartean eta Mintzolan burutu nituen.

Nire kasuan, Antropologiako karrera bukatzeaz nengoenean ikastetxe ezberdinetan irakasle lanetan zebilen pertsona batek amatasun baja hartu zuen, curriculum bidali eta lan poltsa horretara apuntatu nintzen. Hautatu egin ninduten eta hortik aurrera lau urtez jarraian ibili naiz eskoletan bertsolaritza ematen. Lau urte horietan zehar bajan zegoen pertsona horrek eszedentzia bat hartu zuen eta elkarteko langileen artean zenbait mugimendu egon zirenez kontratua luzatu egin zidaten.

Lau kurtso horietan zehar hezkuntza arautuko 5. eta 6. mailetan saioak eman ditut. Hala ere, hasieran batez ere, DBHn eta batxillergoan zenbait saio emateko aukera izan nuen.

Proiektuari hurbilpena:

- 3. Zer da “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektua? Zer dela eta sortu zen proiektu hau?**
- 4. Zure kasuan, noiz sartu zinen proiektu honen parte izatera eta ikastetxe ezberdinetan klaseak ematera?**

EHko Bertsozale Elkartearen barruan bertsolaritza sustatu behar zela antzeman zen eta horren ondorioz sortu zen proiektu hau. Honi esker eskoletara eta jende gehiagorengana iritsi eta zabaltzeko aukera handiagoa zegoen eta noiz sortu zen ez dakidan arren leku ezberdinetara iritsi eta finkatu dela esan dezaket.

Nire kasuan, Araba mailan ibili naiz eta orokorrean ikasleek hamabostean behin jasotzen dute bertsolaritza klase bat. Saio horiek normalean euskara klaseetan izaten dira, eskolaren arabera noski. Guztira kurtso osoan zehar hamabost saio inguru ateratzen dira. Herriaren arabera udalek, eskolek, E.J., etab. ordaintzen dituzte; lurralde, eskualde edo herriaren arabera.

Ibilbidearen progresioa (lehenaldia eta orainaldia):

- 5. Sartu zinen garaian zein zen proiektuak bizi zuen egoera ikastetxe ezberdinetan?**
- 6. Egunak eta urteak igaro egin diren bezala hezkuntza bera ere aldatu egin da. Nolako eboluzioa bizi izan du proiektuak ordutik gaur egunera?**

Nire kasuan, lau urte horietan zehar, Bertsozale Elkartearen barruan hausnarketa fase bat eman zen (hamabi urtean behin ematen dena); eta bai elkartean bai proiektuan zenbait aldaketa eman direla ikusi nuen. Irakasle lan hori utzi nuenean eman zen egitasmoan aldaketa eta gainera zeozer dakidan arren uste dut ezin dudala ziurtatu benetan nolakoa izan den aldaketa hori.

Beste aldaketetako bat liburuei eta baliabideei dagokiena da. Hasi egin nintzenean liburuekin (5. mailan batekin eta 6. mailan beste batekin) eta USB batekin ematen nituen saioak. Ondoren, liburuak beste batzuetara aldatu egin ziren eta sarean material biltegi modukoa sortu zuten. Gaur egunean, uste dut leku batzuetan jada liburua alde batera utzi dutela eta libururik gabe saioak ematen hasi direla.

Azkeneko aldaketa honekin, Artola bertsolaria ari da esperimentu zehatzagoak egiten eta liburuak albora uzten. Esperimentu honekin bertso idatziaren metrika eta zorrozatasuna alde atera utzi nahi da eta bat-batekotasunera salto egin, inprobisazioa landuz.

Irakasleen formakuntza:

- 7. Egitasmo honen deskribapen ezberdinetan, hala nola, Bertsozale Elkarteko web-gunean, nabarmendu egiten da proiektuan bertan lanean zaudeten irakasleek formakuntza jasotzen duzuela. Nolako formakuntza mota jasotzen duzue?**
- 8. Formakuntzaz gain aipatzen da material berria ere sortzen duzuela. Nolako material mota sortzen duzue eta taldean sortzen al duzue material hori?**

Formakuntzak normalean kurtsoa hasi aurretik izaten dira, Iraila hasieran. Hasieran, formakuntza jasotzearen ordeztu irakasle taldea bildu egiten da kurtsoaren helburuak zehaztu eta jarraituko den norabidea definitzeko (Euskal Herri mailan).

Araban, formazio ezberdinak antolatu izan dira hezkuntza arautuan ibiltzen diren irakasleekin, baita bertso eskoletako irakasleekin. Gogoratzen dut bat izan zela kantaerari buruz, bestea audioak grabaketa eta edizioari buruz... Nire kasuan formakuntza formal hori ez da izan garrantzitsua; bai ordea irakasle ezberdinen artean sortutako laguntza saretxo hori. Araba mailan oso irakasle gutxi ginen eta ondo eramaten ginenez ostiraletan bildu egiten ginen jarduna komentatzeko eta horren inguruan hitz egiteko, baita beste gauzetarako ere. Nire kasuan, une horiek aprobetxatzen nituen neuzkan zalantzak galdetzeko eta konpartitzeko.

Aipatu dizudan aldaketa hori dela eta formakuntza egiteko modua ere aldatu egin da eta uste dut bideo bat grabatzearekin zerikusia zuen zeozerekin hasi zirela. Hau hobeto Peru edo Uxuek azalduko dizute. Artolak eramaten zuen proiektu horrekin nahi zena zen bideo bat grabatzea eta ondoren mintegi txikietan bilduta zer hobetu ikustea eta aldaketa posibleak aztertzea.

Proiektua barrutik:

9. Proiektu honek zenbait helburu zehazten ditu, horietako bat euskararen sustapena da. Ikasleek egitasmoari esker zein onura lotzen dituzte euskararen jabekuntza eta erabilera mailari dagokionean?

Bertsolaritzak asko laguntzen du euskara sustatzen eta ezagutza hobetzen. Azken finean, hamabostean behin egiten den zeozer izanda haien errutinetan zeozer berria izaten da, ez egunero edo astero jasotzen duten zerbait. Saio horretan hizkuntza asko lantzen da bertsoak eginez eta entzunez eta bertso horiek barrutik landu egiten dira, normalean euskara klaseetan ere egiten duten arren.

Hala ere, bertsoak sortzerako orduan hitz berriak ezagutu eta bilatu behar izaten dituzte, betiko hitzek askotan silaba horietan sartu ezin dituztelako edo errimatzen ez duten hitzak direlako. Hiztegia asko lantzen da beraz. Bertsoak egiten ari diren unean ere Euskara da lantzen den hizkuntza; eta jolasen bidez saiatzen gara euskararen erabilera ondo pasatzearekin eta aisialdiarekin lotzen.

10. Euskararen erabilera eta ahalduntze hori eskuratzeko nola motibatzen dituzue? Zein teknika mota erabiltzen dituzue?

Gehienetan ariketak diren arren ariketa horiek jolas moduan planteatzen ditugu, motibatzeo aukera emanez. Bestalde, kurtsoan zehar egitasmo ezberdinak egiten ditugunez, hala nola, kurtso amaierako jaialdiak. Jende aurrean jartze hutsak asko ilusionatzen ditu eta nahi gabe beste ikasleen aurrean euskaraz kantatzen dute, kantaera lantzen dute, etab.

11. Bertsolaritza euskal kulturaren parte izanda, nola eragiten diezue ikasleei euskal kulturara hurbiltzeko?

Bertsolaritza, Euskal kulturaren parte izanda, bertsolaritza lantzen den heinean kultura ari zara lantzen. Bertsoak sortzen eta lantzen ari garenean egia da kultura lantzeko aukera dagoela, bertsoak entzun egiten baitira. Gai ezberdinak lantzen ditugu bertsoekin eta hauei esker, nire kasuan, errealitatera salto egin eta gai horiek egunerokoarekin lotzeko baliatzen ditut. Euskara gaia adibidez hizkuntza minorizatuen kontura hurbiltzeko erabiltzen dut edo Santa Agedan askotan bertsoak sartu eta kantatzeko. Aukera ezberdinak planteatzen dira

lekuan lekuko kontuekin. Herriaren arabera ohituretan bertsolaritza tartekatzen saiatzen gara lekuan-lekuko ondarea lantzeko.

12. Musikak ba al dauka eraginik kultura-hurbilpen horretan? Hala bada, zein teknika erabiltzen dituzue?

Doinuak ikasi egiten ditugu hauek entzunez eta jolasen bidez landuz. Irakasle batzuk gitarrak edo beste instrumentuekin lagundu egiten dira egunerokoan, nire kasuan ez dut horrela egiten oso txarra baina. Egia da musikarekin gehiago motibatzen direla edo hurbiltzen direla. Arbel digitalean materiala sartu zenean material guztia musikatu egin zen.

Nire zalantza honakoa da: bertsoa erakargarriagoa egiten diegu baina berez errealtatean produktu hori ez da horrela. % 95 batean bertsoa ez da musikatu eta hortxe agian tranpa egiten dugula esan daiteke.

Bestalde, frogatuta dago musikalki bertsolaritza erakargarriagoa dela eta hau ezin dugu ahaztu.

Rapa ere landu egiten da noizbehinka; hau agian DBHkoekin gehiago, nagusiagoak direlako. Araban normalean DBH-ko eta batxilergoko ikasleekin egiten ditugun saioetan erabiltzen ditugu.

13. Beste helburuetako bat ikasleak bertsozaleak izango litzateke. Eskoletan ikasleak bertsozaleak direla ikusi al duzu? Haziak landatu ostean fruiturik jaso al duzue bertso-eskoletan?

Hau betiko kezka da. ikasle askorengana iritsi egiten gara baina gero pausu hori ematea oso zaila da. Denek jasotzen dute bertsolaritza oinarri bat baina gero gutxi dira salto egitera animatzen direnak. Horretarako bertso udalekuak eta barnetegiak egiten ditugu Euskal Herri eta Araba mailan, udaran eta neguan. Aprobetxatu egiten ditugu egitasmo hauek bertso mundutik gertuago daudenak hurbildu eta gehiago zaletzeko.

Arabian, azkeneko 4 urteetan berreskuratu egin da bertso-paper lehiaketatxo bat, eskualdekako topaketetan aurkeztzen dena eta irabazleek Araba mailako finalean parte hartzen dutena. Boluntarioa denez, motibazio handiena dutenak apuntatzen dira eta fruituak

eman direla ikusi daiteke: Araiako bertso eskola, Arabar Errioxan egon zen besteren bat handik gutxira utzi egin zutena.

Proiektuarekin zuzenean nire ustez ez da zubi lan hori eman; bai ordea horretako egitasmo xumeagoekin, bi aldeak lotzeko balio izan baitu.

Arabako errealitateak eta metodologia:

14. Proiektua Araba osoko ikastetxeetan aurrera eramaten da. Zein eskualdetan ematen dituzu saioak?

Hasieran, Gasteizen eta Arabar Errioxan ibili nitzen. Gainonztekoetan, Lautadan eta Gasteizen ibili izan naiz, eta azkenekoz Gorbeialdean ere bai. Tailerren bat Langraitzen ere emateko aukera izan dut, 5. mailan.

15. Proiektuak ikaskuntza autonomoa eta parte hartzailea bultzatzen duela aipatzen da. Jakinda Arabako eskualde bakoitzaren euskararen errealitatea oso ezberdina dela, metodologikoki eta didaktikoki egoikitzapenik egiten al duzue? Hala bada, adibideren bat emango zeniguke?

Azkenean materiala denontzat berdina da eta asko dago, beraz saiatu egiten gara moldatzen. Euskararen ezagutza maila eta honekiko jarrera nahiko antzekoa da leku guztietan, Aramaion kenduta. Saiatzen naiz lekuan-leku haien intereseko gaiak jorratzen. Ez da horrenbeste euskararekiko duten ezagutza edo atxikimenduan izaten baina bai interesetan, mailara ere noizbehinka egokitu behar garen arren. Klaseak oso moldagarriak dira, froga eta azketerketarik gabe direnez moldagarriak izaten dira. Eskolen araberako jaialdietara ere moldatzen gara: gabonetan, inauterietan, santa agedan.... Gehiago da eskola edo gelaka eskualdeka baino, nire kasuan noski. Beraz, nire klaseak interesen arabera moldatzen ditut eta euskararen mailari garrantzia gutxiago ematen diot.

Baliabide didaktikoak:

16. Liburuekin eta baliabide teknologiko ezberdinekin lan egiten duzue. Zein aukera eskaintzen dizkio bakoitzak ikasleriari?

Hasi nintzenean "Gu ere bertotan" izeneko bi liburu zeuden, bi CDrekin batera. Oso mugatua zen hori guztia eta zeozer berria asmatzeko askatasuna zegoen arren ez zegoen

inolako baliabiderik eskura. Ikusi egin zen materiala zaharkituta geratu zela eta bertso sortak ere desfasetuta zeudela. Proiektua aldatu eta "Mundu bat bertso" proiektua hasi zen martxan jartzen, liburu berriak atera eta egokitu ziren materialarekin batera. Euskal Herri mailako irakasle guztiok parte hartu genuen horretan.

Bakoitzak ahal zuena asmatu eta luzatu zuen liburuan txertatzeko eta elkartetik irakasle bakoitzari lan espezifikoa egiteko eskatu zitzaigun. Euskal Herriko irakasle guztiok parte hartu genuen. Audio baliabide-sorta handia sortu zen eta denak biltegi moduan apilatu genituen, nahi genuenean sartu eta hortxe topatzeko.

Azkenik, arbel digital edo plataforma bat sortu zen bakoitzak bere materiala igo zezan. Bertso saio ezberdinak eskuratzeko aukera ere badago eta eguneratzen doa etengabe. Bertso jolasak ere topatu daitezke. Plataforma honetan zati bat irakasleentzat zuzendutakoa da, itxia dena. Beste zati bat eskoletako ikasle eta irakasleentzat sortutakoa da, materiala eskura izan dezaten.

17. “Bertso ikasgela” web-orriko baliabideak erabiltzen al dituzu? Hala bada, zergatik?

Nire kasuan, material berria bi urtez erabili dut eta arbel digitala urtebetez. Oso ondo dago eta asko erretzen du lana. Eskola bakoitzean egindakoa aukera eskaintzen du arbel horrek.

Gaur egun, material eta baliabideekin sortutako hausnarketa bat dago abian; uste baita liburu idatziak jada alboratzeko unea da. Kasu honetan, helburu ekonomikoak sartzen dira jokoan, eskolek liburuak erosi egiten baitituzte eta behartuagoak gaudelako horiek erabiltzera. Beste aldetik, emaitza onak ateratzen ari dira libururik gabeko saioak jasotzen dituzten ikasleek.

Ni kontrakoa naiz. Liburua eskolei saltzen zaienez behartuta gaude askotan hori lantzerik eta mugatuagoa da erakusteko modua. Plataforma, ordea, aniztagoa izanda askoz gai eta puntu gehiago jorratu daitezke.

Ondorioak eta emaitzak:

18. Azkenik, proiektuak urteetan zehar izan duen ibilbidea eta hartutako indarra ikusita uste al duzu “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuak hezkuntza arautuan jorratzen jarraitu behar dela? Zergatik?

Nire ustez proiektu hau oso garrantzitsua da, bertsolaritzaz gain beste zenbait balore eta gai jorratzeko akera dago (M8-a adibidez). Proiektuak aurrera egin behar duela uste dut, unean-uneko egoerara moldatuz.

Bestalde, oinarrizkoa ikusten dut beste zenbait egitasmok ere aurrera egitea. Lehen aipatu bezala, eskolaz kanpoko egitasmok hezkuntza arautuaren eta bertsolaritzaren arteko zubi lana egiteko balio dute. Nire ustez, egitasmo hauek gabe eskoletan lantzen dena mugatuago geratuko litzateke; bertsozaletu nahi diren ikasleengan kaltea sortuz eta eragin txikiagoa sortuz. Fruitu gutxiago jasoko lirateke.

7.2. Peru Abarrategiri elkarrizketa

Aurkezpena:

- 1. Lehenik eta behin, nor zaitugu eta zein da bertsolaritzarekin daukazu harremana?**
- 2. Zure kasuan nola sartu zinen bertso mundura? Nork edo zerk bultzatu zintuen?**

Peru Abarrategi naiz, Aramaioko 22 urteko gaztea. Lehen Hezkuntzako 5. mailan hasi nintzen herriko bertso-eskolan bertsoan eta gaur egunean "Bertsolaritza Ikastetxean" hezkuntza arautuko programan lanean nabil LH5 eta 6. mailatan bertsolaritza klaseak ematen.

Proiektuari hurbilpena:

- 3. Zer da "Bertsolaritza Ikastetxean" proiektua? Zer dela eta sortu zen proiektu hau?**

Bertsolaritza ezagutzera emateko eta euskararen erabilera zein sustapena eskoletatik zabaltzeko programa da, hau guztia modu ludiko batean eskainia eta erakargarri egina. Euskal Herriko eremu ezberdinetara zabaldu egin da eta lurralde ezberdinetako Bertsozale Elkarateek bultzatu dute. Nahiko programa erakarigarria bihurtu da eta nire aldetik behinaz esan beharra dut oso gustora eta motibatuta ematen ditudala saio horiek denbora tarte ederrak pasatuz.

- 4. Zure kasuan, noiz sartu zinen proiektu honen parte izatera eta ikastetxe ezberdinetan klaseak ematera?**

Esan dizudan bezala aspalditik daukat haremana bertsolaritzarekin eta aurretik bertso-eskoletako irakasle oduan ere ibili izan naiz. Arabako Bertsozale Elkaratearekin harremana daukadanez enteratu egin nintzen hezkuntza arautuan plaza bat libre egongo zela eta kasualitatez Euskal Filologiako ikasketak bukatu berri ditudanez curriculumak bidaltzea erabaki nuen. Zortea izan nuen nirekin kontatu zutela eta ordutik hona oso pozik nabil eskoletan barrena.

Ibilbidearen progresioa (lehenaldia eta orainaldia):

5. **Sartu zinen garaian zein zen proiektuak bizi zuen egoera ikastetxe ezberdinetan?**
6. **Egunak eta urteak igaro egin diren bezala hezkuntza bera ere aldatu egin da. Nolako eboluzioa bizi izan du proiektuak ordutik gaur egunera?**

(Peru proiektura aurten sartu denez eta horren inguruan askotxo ez zekienez galdera moldatzea erabaki nuen. Peruk proiektu hau bere Lehen Hezkuntzako ikasle garaian jaso zuenez ordutik gaur egunera arteko saltoaren inguruan galdetu nion).

Gustatzen zait galdera bai.. interesgarria. Ba konturatu naiz, aurrez banekien ere, Araba osoan zehar euskara erabilera eta jakintza ezberdinak zeudela eta honi esker errealitatera hurbuldu ahal izan naiz. Aramaion txikitatik izan dugu hizkuntza baliabide nahikoa euskarari dagokionez Arabako beste eskoletan ikusi dudana baino. Nire ikasle garaian programa hau izan zen bertsolaritzara hurbildu ninduen; Aramaioko eskolara Iñaki Viñaspre eta Oihane Perea etorri izan zaizkigu eta gustatu egin zitzaidanez salto egin nuen bertso-eskolara.

Saioetan zehar konturatu naiz klaseen arabera moldatu behar direla saioak. Batzuk, material eta eduko maila handiagoa eskatzen dutela bertsolaritza ezagutzari begira eta beste batzuk ordea nahikoa dutela ordu batez euskara modu ludiko batean jasota. Beraz, lekuan-leku helburu ezberdinak planteatu behar direla konturatu naiz; konformista izan gabe ere, leku batean lortutakoa beste batean lortzera behartuta ez zaudela. Helburuak eskolaz-eskola edo taldez talde planteatu behar dira.

Irakasleen formakuntza:

7. **Egitasmo honen deskribapen ezberdinetan, hala nola, Bertsozale Elkarteko web-gunean, nabarmendu egiten da proiektuan bertan lanean zaudeten irakasleek formakuntza jasotzen duzuela. Nolako formakuntza mota jasotzen duzue?**

Aurten Irailean hasi ginen lanean, baina eskoletara Urrian joan ginen. Bertsozale Elkartetik bultzatuta gurera Mikel Artola etorri zen saio bat ematera eta niri behintzat eskemak apurto zizkidan formakuntza izan zen. Izan ere, nire bertsolari hastapenetan eta urte askotan erakusten ibili naizen hortan hasieran paper eta arkatzarekin idatzten ikasi izan dugu.

Mikelek, ordea, erakutsi zigun Bertsozale mundua inprobisazioan oinarritutako jarduna dela eta aberasgarria dela hau ere bertsolari gazteengana hurbiltzea. Papera eta arkatza ahaztu eta hasieratik inprobisazioan oinarritutako saioak ematea onuragarria izan daitekeela konturatu nintzen. Nik askotan paper eta arkatzarekin silabak kontatzen tematuagoa ibili naizen arren Mikeli esker ikasi dut garrantzitsuagoa dela ikasleak askatzea eta doinu, errima eta hitz berriak ikastea paper batean idaztera behartu baino. Buruhauste handia izan den arren oso baliagarri eta aberasgarria egin zait.

8. Formakuntzaz gain aipatzen da material berria ere sortzen duzuela. Nolako material mota sortzen duzue eta taldean sortzen al duzue material hori?

Bai, nahiko berria den kontua da baina plataforma digital bat sortu berri dute: bertso ikasgela. Lurralde bakoitzeko irakasle ezberdinei inprobisazioan oinarritutako ariketa pare bat sortzeko eskatu egin ziguten eta horretaz gain probintzia bakoitzeko irakasle talde ezberdinei pare bat jolas asmatzeko. Plataforma digital hau oso berria denez orain hortan gabiltza materiala sortuz ondorengo urteetan gauden eta datozen irakasleentzako baliogarria izan dadin.

Nire kasuan oso baliogarria egin zait. Eskola askotan konturatu naiz arbel digitalei garrantzia eta erabilera handia ematen zaiela eta gure alderdian garrantzitsua da horrelako baliabideak eskura izatea. Liburuak ere erabili egiten ditugu baliabide digitalekin batera eta edozein erreminta berri da ongi etorria.

Gure liburuak mundu bat bertso deitzen dira eta bosgarren eta seigarren mailarako liburu bana dago. Nahiko liburu mardulak dira eta eduki asko ageri da horietan; material dena emateko aukera ez dagoen (kurtsoan soilik 15 saioa dira eta) arren nahiko material interesgarria dago bertan eta sailkatze baten bidez gustatzen zait noizean behin ariketa espezifikokoak lantzeko liburuetara salto egitea.

Proiektua barrutik:

9. Proiektu honek zenbait helburu zehazten ditu, horietako bat euskararen sustapena da. Ikasleek egitasmoari esker zein onura lotzen dituzte euskararen jabekuntza eta erabilera mailari dagokionean?

Hasieratik, hori enmarkatu izan dut. Esan bezala ikasleek euskara era ludiko batean jasotzeko oso aukera gutxi dituzte. Bertsolaritza emateko modu honi esker normalean jasotzen duten euskara formalagoan oinarritutako marko hori alboratu eta geureganatu egiten ditugu ikasleak. Modu ludikoan saiatzen gara: audioak entzutez doinuak ikasten, bertsoak sortzen, gai ezberdinak lantzen, ipuinak bertsotara pasatzen, eskolako beste kideei abesten... Beraz, esan bezala argi ikusi dut gurean ludikotasunari esker euskara lantzeko modu bikaina daukatela ikasleek, beste oinarritzko ikasgai batzuetan formalagoki jasotzen dute eta.

10. Euskararen erabilera eta ahalduntze hori eskuratzeko nola motibatzen dituzue? Zein teknika mota erabiltzen dituzue?

Begira ba nik kontatu egingo dizut nire lankide batek kontatutako anekdota bat... Kurtso hasierako lehengo saioan ikasleekin batera tratu edo pakto moduko bat egiten dugu kurtsoko hiru helburu nagusi sustatzeko: parte hartzea, euskararen erabilera positiboa eta elkarren arteko errespetua mantentzea klasean lotsa albo batera uzten saiatuz. Trukean, gure aldetik azterketarik egiten ez dugunez saiatzen gara ondo pasatzeko baliabideak eskaintzen eta ikasle horiek asko ez zamatzen. Gehienetan konkistatu egiten dituzu ikasleak, ondo pasatzeko gaudela, kantzatzen saiatzeko eta lotsatiagoa den ikasle bat ez dela derrigortua sentitu behar kantatzera.

11. Bertsolaritza euskal kulturaren parte izanda, nola eragiten diezue ikasleei euskal kulturara hurbiltzeko?

Irakasle taldean askotan hausnartu izan dugu horretaz eta konturatu gara gure lana ez dela kurtsoan zehar ikasle horren ehuneko berrogeitamarrean hobetu eta eragin horretan bertso-eskoletara pasatzea. Bai igarri dugu, eta ni naiz horren erakusle bat, ez dugula zertan zenbakietan tematu eta geroz eta bertsolari gehiago sortzea. Araba bezalako lurralde batean denok izan gara ale solteak eta horrek lurralde osoan zehar zabaltzera dakar. Egitasmoari esker denek jasoko dute bertsolaritzarekiko nozio minimo bat eta ondoren bertsozaletu nahi dena eta gustatzen zaionak bidea jarraituko du bertsolari, epaile,

gai-jartzaile edo eragile moduan. Beraz, pertsona batzuegan eragina sortzen badugu horiengan bai emango dela kultura transmisio hori eta haria ez dela etengo.

Oso zaila da bertsolaritza zer den ez dakiten klase batera sartzea eta 15 saioetan 20 ikasletik 15 bertso-eskoletara salto egitea. Baina beti egongo dira bi-hiru ikasle kili-kilia izango dutenak eta jakinmin horrek bertso modura hurbilduko dituenak. Eta ez dute beti bertsolari izan behar, bertsozaleak ere bihurtu daitezke. Alde horretatik egitasmoak lan polita egiten duela uste dut.

12. Musikak ba al dauka eraginik kultura-hurbilpen horretan? Hala bada, zein teknika erabiltzen dituzue?

Argi eta garbi. Bertsotan egiteko doinuak ikasi behar dira eta ikasleentzat oso motibagarria den arloa da hau. Kantatuz gozatu eta askatu egiten dira eta musika baliabide gisa erabiltzeak asko laguntzen du.

13. Beste helburuetako bat ikasleak bertsozaleak izango litzateke. Eskoletan ikasleak bertsozaleak direla ikusi al duzu? Haziak landatu ostean fruiturik jaso al duzue bertso-eskoletan?

Aurreko galderan erantzunda dago.

Arabako errealitateak eta metodologia:

14. Proiektua Araba osoko ikastetxeetan aurrera eramaten da. Zein eskualdetan ematen dituzu saioak?

Aurten zortea handia izan dut lanaldi osoan klaseak eman ditudalako eta saioak Aramaion, Legutian, Zigoitian eta Gasteizko 11 eskoletan ematen ibili naiz. Horri esker erralitate ezberdinak ezagutu ahal izan ditut.

15. Proiektuak ikaskuntza autonomoa eta parte hartzailea bultzatzen duela aipatzen da. Jakinda Arabako eskualde bakoitzaren euskararen errealitatea oso ezberdina dela, metodologikoki eta didaktikoki egoikitzapenik egiten al duzue? Hala bada, adibideren bat emango zeniguke?

Nire kasuan, Iñaki Viñaspre ordezkatzan dut eta hasieratik berak hori nabarmendu zidan. Helburuak ezberdinak izan behar dira klase bakoitzean: klase batean agian 8 bertso sortzen dituzu ordu batean eta goiz horretan beste eskola batean aldiz 2 bakarrik. Beraz, guk jakin behar dugu eskola bakoitzera eta klase bakoitzari moldatzen.

Hasieran, zailagoa den arren saioak aurrera egin ahala ikasle taldeak ezagutzen hasten zara eta haien beharrak ezagutzen dituzula. Modu berean badakizu noiz egin ahal dituzun txisteak eta noiz bronkaren bat bota. Ni behintzat saiatu egiten naiz klase bakoitza ikasleen ezagugarrietara moldatzen.

Baliabide didaktikoak:

16. Liburuekin eta baliabide teknologiko ezberdinekin lan egiten duzue. Zein aukera eskaintzen dizkio bakoitzak ikasleriari?

Aurreko galderetan erantzunda.

17. “Bertso ikasgela” web-orriko baliabideak erabiltzen al dituzu? Hala bada, zergatik?

Aurreko galderetan erantzunda.

Ondorioak eta emaitzak:

18. Azkenik, proiektuak urteetan zehar izan duen ibilbidea eta hartutako indarra ikusita uste al duzu “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuak hezkuntza arautuan jorratzen jarraitu behar dela? Zergatik?

Uste dut egitasmoak etorkizun oparoa duela. Momentuz ikusten dut ikasleak eta eskolek proiektuak jasotzen jarraitzen duten neurrian proiektua bizirauten jarraituko duela. Hala ere, beldurra ematen dit, lehen aipatu moduan, proiektua zenbakietara bideratzea. Gauza da urte

batean zubi lan horretan 20 pertsona izan diatezkeela mugitutakoak eta beste urte batean 5 ikasle. Horrek ez du esan nahi 5 ikasle mugitutako urte horretan proiektuak bere eraginik edo lanik egin ez duenik. Guztiei ezin zaie bertsolaritza gustatu eta urte batean batzuk aterako dira eta beste batean beste batzuk.

Nire ustez, zenbakiak baino kalitatea bermatu beharko litzakete; ikasleei bertsolaritza zer den erakustea eta ordu politik pasatuz ikasi ahal izatea. Egitasmo hau helburua lortuko duela Euskal Herriko eremu ezberdinetan; batzuetan (Bizkaia edo Gipuzkoa kasu) asko zabaldu daiteke eta Nafarroa, Iparralde edo Araba bezalako eremuetan ere lortu daitekeela.

7.3. Uxue Diaz de Ceriori elkarrizketa

Aurkezpena:

- 1. Lehenik eta behin, nor zaitugu eta zein da bertsolaritzarekin daukazu harremana?**
- 2. Zure kasuan nola sartu zinen bertso mundura? Nork edo zerk bultzatu zintuen?**

Uxue Diaz de Cerio Azpiolea naiz eta bertso eskolan 12-13 urterekin hasi nintzen Oihane Perek motibatuta. Oihane gure asialdi taldeko begiralea zen eta hortxe harrapatu gintuen taldetxo bat bertso eskolara eramateko; izan ere, udalekuetan askotan jarri izan gintuen erratz baten aurrean kantatzen. Orduan hasi nintzen ni, aisialde taldeko beste zenbait lagunekin (Olatz Perea, Argiñe...) kantatzen gutxi gorabehera 18 urte bete arte. Une horretan eskolartekoari "boikota" egin eta unibertsitatean sartu nintzen.

Unibertsitatetik bueltan Gasteizen lanpostu bat atera zen elkartean eta curriculum bidaltzea pentsatu nuen. Hartu egin ninduten eta hasieran eragile bezala lan egiteko bazen ere Oihanek eman beharreko zenbait klase ere ematen hasi nintzen (berak ezin zuenean). Hortik aurrera Oihaneren zenbait ordezkapenekin hasi nintzen klaseak ematen, beste zenbait urtez klaserik eman gabe ibili nintzen eta horrela ibili naiz modu intermitentean, bi haurdunaldi ere pasa izan baititut. Denbora horretan eskoletaz gain, elkarteko eragile bezala eta bertso irakasle moduan ere ibili naiz.

Proiektuari hurbilpena:

- 3. Zer da "Bertsolaritza Ikastetxean" proiektua? Zer dela eta sortu zen proiektu hau?**

Proiektu honen lehengo helburua bertsolaritza hedatzea da etorkizun batean zubi lana eginez bertsozale zein bertsolariak plazaratzeko. Helburu horretaz gain euskara indartu eta sustatzeko helburua ere bazen; ahoskotasunaren, bat batekotasunaren eta sormenaren bitartez lantzea eragingo zuena. Oso proiektu potentea izanik euskal kultura eta musika modu naturalean lantzeko aukera ere bermatzen du eskoletako ikasleen artean.

4. Zure kasuan, noiz sartu zinen proiektu honen parte izatera eta ikastetxe ezberdinetan klaseak ematera?

Aurrez aipatu bezala 2011.urtearen bueltan hasi nintzen modu intermitentean elkartean eragile moduan lan eginez eta eskoletan klaseak ematen.

Ibilbidearen progresioa (lehenaldia eta orainaldia):

5. Sartu zinen garaian zein zen proiektuak bizi zuen egoera ikastetxe ezberdinetan?

6. Egunak eta urteak igaro egin diren bezala hezkuntza bera ere aldatu egin da. Nolako eboluzioa bizi izan du proiektuak ordutik gaur egunera?

Sartu nintzen garaian uste nuena baino onarpen handiagoa zuen; 2008.urteaz geroztik, curriculumaren sorreraren ostean, urtez urte joan izan gara proiektua eraikitzen: liburuak sortzen, materiala sortzen, web-guneak sortzen... Ordutik gaur egunera momentuko errealitatera egoitzen saiatu izan gara; gaur egungo egoeran adibiez oso ondo etorri zaigu web gunea arakatzeko eta oraintxe web gunetik lanean ari gara (2011.urtean adibiez ez zegoen web gunerik).

Beraz, garai berri hauekin batera baliabide ezberdinen agerpena iritsi da eta teknologiak adibidez gure proiektuaren baitan sekulako aldaketa sorraraztea eragin du.

Irakasleen formakuntza:

7. Egitasmo honen deskribapen ezberdinetan, hala nola, Bertsozale Elkarteko web-gunean, nabarmendu egiten da proiektuan bertan lanean zaudeten irakasleek formakuntza jasotzen duzuela. Nolako formakuntza mota jasotzen duzue?

Urtero saiatzen gara egon dadin irakasleontzako formazioa; azkenaldian Bertsozale Elkartetik bideratu egiten da. Bere garaian Power Pointak, etab, nola egin azaltzeko formakuntzak izaten genituen baina gaur egun fase hori jada gaindituta daukagu. Gaur egun formakuntzek aldaketa bat izan dute eta power pointen kontua alde batera geratu eta izaera pedagogikoagoa hartu dute. Psikologo eta pedagogo ezberdinen laguntzaz aurrera eraman izan ditugu formakuntzak; gelako arazo, egoera, gazka eta bestelakoak aztertu eta tresna edo baliabideak ezagutzeko eta lantzeko aukera izateko. Askotan hausnartzeko tarteak ere

izan ditugu; izan ere, egunero alde batetik bestera mugitzen garen irakasleak gara, gela bakoitzean hamabostean behin egonda, eta ikasleak ezagutu egiten ditugula uste badugu ere askotan ondo dator pentsatzea eta lasaitasunez ezagutza hori aurrera eramatea. Hala nola, izandako arazoak identifikatzeko eta haien jarrera zein erantzunak nolakoak eta zergatik izan diren aztertzeko.

Autoformazioen fasean ere sartuak gaude une honetan eta gure kabuz egiten ari garen arren agian beharrezkoa izango dugu kanpoko adituren baten laguntza. Une honetan Euskal Herriko eragile batekin ari gara (Mikel Artolarekin) eta bere master amaierako lanarekin bat eginda hausnartzen ari gara nola bere garaian ahoskotasunaren bidez ematen zen transmisioa eta ez horrenbeste paper eta boligrafoaren bidez. Hori dela eta, gureganatu eta eskoletako errealitatera moldatzen saiatu gara ikas-liburuetan aldaketak eginez eta gure jarduna moldatuz. Une honetan ez daki bukatu ote duen edo bukatzeaz dagoen baina berak elkartera hurbildu digu gaia; baliabideak eskaini egin dizkigu klase zein eskola ezberdinetan probak egiten joateko eta eraikitze fase horretan sartzeko. Beraz, jauzi bat eman da bertsoak idaztetik ahoskotasun eta bat-batekotasunaren aldera inprobisatuz bertsoak sortzera.

8. Formakuntzaz gain aipatzen da material berria ere sortzen duzuela. Nolako material mota sortzen duzue eta taldean sortzen al duzue material hori?

(Baliabide didaktikoaren atalarekin bat eginda)

Bai, aipatu bezala material berria sortzen ibili gara urteotan. Material guztia web gune horretara igo da eta une honetan bereiziki horrek salbatu gaituela uste dut; izan ere, material eta baliabide gehienak hortxe eskura ditugu. Bertan badaude jolas eta bertso ezberdinak egiteko aukera, bertsoak entzuteko aukera, beste eskoletan landutakoa ikusteko aukera... eta baita egunez egun egindakoa bertan artxibatzeko aukera ere, egindakoa galdu gabe.

Liburuak gaur egunean ere erabiltzen jarraitzen dugu etorkizunean agian aldatuko bada ere. Inprobisatzen hasi badira ere zenbait teoria liburuetan eskura izan eta nohizbehinka bertso bat egituratzeko idaztea ondo etortzen da, daukagun teoria apurra gordetzeko bada ere (liburuak beti altxor!).

Proiektua barrutik:

- 9. Proiektu honek zenbait helburu zehazten ditu, horietako bat euskararen sustapena da. Ikasleek egitasmoari esker zein onura lotzen dituzte euskararen jabekuntza eta erabilera mailari dagokionean?**

Bertsolaritza hitzekin jolastea da eta euskaraz soilik lantzeko aukera ematen du. Jolas horretan beharrezkoa izaten da silaba kopuru horrekin, esaldi horiekin, errimekin.. jolastea eta horrek euskara lantzeko balio izaten die.

- 10. Euskararen erabilera eta ahalduz hori eskuratzeko nola motibatzen dituzue? Zein teknika mota erabiltzen dituzue?**

Nire kasuan nahiko modu naturalean jarduten dut daukagun materiala erabiliz eta horrek eskaintzen dituen aukeretaz baliatuz. Ikasleen ezaugarriak eta motibazio ezberdinak identifikatzen ditut eta euren motibazio horren arabera erantzuten dut; ez daukat inolako motibazio teknika berezirik.

- 11. Bertsolaritza euskal kulturaren parte izanda, nola eragiten diezue ikasleei euskal kulturara hurbiltzeko?**

Behintzat saiatu egiten gara bertsolaritza euskal kantu inprobisatu bat dela ezagutarazten, askok ez baitute jakiten. Ezagutzen ez dutenei aukera ematen diegu eta aurrez ezagutzen duten horiei umeen jardunera hurbiltzeko pausoak eskaintzen dizkiegu, izan ere, azkeneko hauek normalean helduen jardun hori bakarrik ezagutzen dute. Hala ere, badaude etxetik datozen beste bertso-friki apurren bat ere eta horiekin lan egitea plazerra da.

Gure lanaren bidez bertsolaritza ikusarazten diegu; Gasteizko jaietan adibidez Ahiotz plazatik pasa eta bertsolariak ikustean zertan ari diren ulertzeko, txapelketak eta kaleko saioak daudela ezagutarazteko... Baita baliabide digitalak ditugula erakusteko: web-guneak, bertso ikasgela, aldizkariak... Behintzat batzuegan interesa piztea lortzen dugu, besteek bertsolaritza existitzen dela jasotzen duten bitartean.

12. Musikak ba al dauka eraginik kultura-hurbilpen horretan? Hala bada, zein teknika erabiltzen dituzue?

Bai noski. Ikasleek kantatzen ikasten dute, publiko aurrean, entonazio egokiarekin... Askok ere entsaiatzen ikasi egiten dute, jakin badakitelako publiko aurrean modu egokian bertsoak botatzeko egokia dela doinua ondo ezagutzea eta entonazio egoki batean lantzea. Alderdi hau bertsoak inprobisatzerako garaian ematen da bereziki, baina baita paper baten aurrean bertsoa sortu behar dutenean ere.

13. Beste helburuetako bat ikasleak bertsozaletzea izango litzateke. Eskoletan ikasleak bertsozaletu direla ikusi al duzu? Haziak landatu ostean fruiturik jaso al duzue bertso-eskoletan?

Bai, aipatu moduan denek jaso dute bertsolaritza zer izan daitekeenaren nozioa, benetan bertsozaletzea gutxiago izatea lortu den arren. Nire ustez bertso eskoletara salto egiteko bidea honakoa da: hezkuntza araututik aisaldira (udaleku, bertso paper lehiaketa, bestelako saioetara) eta aisialditik bertso eskoletara. Batzuetan badaude zenbait parakaidista beste orden batean egiten dutenak jauzi hori ere baina nire ustez hori da orden egokiena. Ikasleak aisialdiaren bidez bertsozaletu behar da eta ondo pasatze horrek piztu dezake bertso munduan jarraitzeko aukera.

Arabako errealitateak eta metodologia:

14. Proiektua Araba osoko ikastetxeetan aurrera eramaten da. Zein eskualdetan ematen dituzu saioak?

Azkeneko urteetan ez horrenbeste baina Oihane Perearen ordezkapenetan Lautadan zehar ibili nintzen eta beste norbaiten ordezkapen batean ere Arabar Errioxan. Errealitate ezberdinak daudela argi dago; baina hiri, herri eta auzo ezberdinetan bezala bakoitzak bere lekuan-lekuko kultura baitauka.

15. Proiektuak ikaskuntza autonomoa eta parte hartzailea bultzatzen duela aipatzen da. Jakinda Arabako eskualde bakoitzaren euskararen errealitatea oso ezberdina dela, metodologikoki eta didaktikoki egoikitzapenik egiten al duzue? Hala bada, adibideren bat emango zeniguke?

Gidoia gehien bat antzekoa daukagu guztientzat baina egia da gidoi hori eskualdez eskualde moldatu egin beharra dugula. Ez bakarrik herriz herri, gehienetan eskolaz eskola eta klasez klase ere errealitateak ezberdinak dira eta bakoitzaren beharretara egokitu egin behar izaten gara.

Pertsonaka esatea askotan ez dakit zeinen erreala izango litzateke hamabostean behin bakarrik eurekin egonik baina egokiena izan beharko litzakeela argi dago. Hala ere, batzuetan egin izaten dugu baina oso kasu solte eta puntualetan.

Baliabide didaktikoak:

- 16. Liburuekin eta baliabide teknologiko ezberdinekin lan egiten duzue. Zein aukera eskaintzen dizkio bakoitzak ikasleriari?**
- 17. “Bertso ikasgela” web-orriko baliabideak erabiltzen al dituzu? Hala bada, zergatik?**

(Irakasleen formakuntza atalean aipatuta)

Ondorioak eta emaitzak:

- 18. Azkenik, proiektuak urteetan zehar izan duen ibilbidea eta hartutako indarra ikusita uste al duzu “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuak hezkuntza arautuan jorratzen jarraitu behar dela? Zergatik?**

Azkeneko 15 urte hauetan fruituak jaso direla argi dago; Arabako D ereduko eskoletatik pasa den ikasle orok badaki zer den bertsolaritza, ikusteko aukera izan du eta zenbait kasutan baditu zenbait erreferente. Bide batez, eusal kultura eta nortasunera hurbiltzeko eta euskal kantu mitiko asko ezagutzeko aukera ematen zaie.

Askotan galdetu izan digute.... "eta zertarako balio du bertsolaritzak?" Eta gure erantzuna... bertsolaritzaren ezagupen minimo bat izateaz gain zu zeu pertsona bezala

hezteko; publiko baten aurrean nola jardun erakusteko, horrenbeste ez urduritzeko, inprobisatzen jakiteko, ideiak antolatzeke, euskara lantzeke, gaitasun sozialak lantzeke... Beldur horiei gainera aurre egiteko tresna bat izaten da.

Beraz, bai, proiektu honek potentziala duela uste dut, beste zenbait urtez aipatutako guztia eskaintzeke duela ikusten dut.

7.4. Oihane Pereari elkarrizketa

Aurkezpena:

- 1. Lehenik eta behin, nor zaitugu eta zein da bertsolaritzarekin daukazu harremana?**
- 2. Zure kasuan nola sartu zinen bertso mundura? Nork edo zerk bultzatu zintuen?**

Oihane Perea naiz. 11 edo 12 urte nituela nire Gorputz Hezkuntzako irakaslea zen Serapio Lopez bertsolariak esaten zidan ona nintzela hizkuntzekin baina nahiko txarra idazten. Orduan, bertso-tailer batzuk eman zizkigun eta ikusi egin zuen jarioa neukala. Gurasoei komentatu zien eta gurasoak garai hartako euskaltzaleak zirenez bertso-eskolara eraman ninduten. Ordutik gaur arte ibili naiz bertso munduan, motibazio berdinarekin; urte hauetan zehar bertsolaritza irakastea nire pasioetako bat bihurtu delarik.

Proiektuari hurbilpena:

- 3. Zer da “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektua? Zer dela eta sortu zen proiektu hau?**

Proiektu bat da curricularrak edo zehar lerro moduan ulertzen diren gaitasunak lantzeko balio duena: trebetasun pertsonal eta sozialak, musikalak, euskal kulturakoak... Bertsolaritzaren curriculumaren bidez eskolak dituen kezketako batzuei erantzuna emateko balio du; izan ere, eduki transbertsal horiek ez dira curriculum ofizialean horrenbeste lantzen. Bestalde, guk eskaini egiten diegu modu ludiko eta motibagarri batean euskara lantzeko aukera.

Duela 30 bat urte Gasteizko eta Aiarako bertso eskolak sortu ziren eta proiektuaren beste helburu nagusietako bat bertsolari eta bertsozaleak sortzea izan zen herrialde osoan zabalkuntza emanez. Araba orokorrean ez dakit erdi aroan edo euskararen arrastorik ote zegoen baina euskararen dekadentzia horretan urte batzuk beranduago badakigu euskararen presentzia ere egon izan dela; adibidez, Lazarraga edo Bautista de Gamiz poeta zena. Beraz, bertsozale elkartetik ia zerotik hasi beharra zegoen lurraldean hastea eta progresioan gora joatea izan zen helburua. Horretarako, ezinbesteko kantera ditugu lurraldeko ikastetxeak.

4. Zure kasuan, noiz sartu zinen proiektu honen parte izatera eta ikastetxe ezberdinetan klaseak ematera?

Duela 20 urte bat hasi nintzen. Uste dut Landazuri ikastetxean hasi nintzela tailer laburren batekin eta hortik aurrera zabaltzen hasi nintzen: Kanpezuko eskolan, Aguraingo Lope de Larrea eskolan, Legutioko Garazi eskolan... Ordutik zabalkuntza handia izatea lortu dugu, gure irakasle ekipoa nabarmenki hasi egin da eta eskualde guztietara iristea lortu dugu. Urte osoko lana ez bada urtean zehar tailerrak jaso izan dituzte ikasleek, bertsolaritza zer den eta gertutik ezagutzeko aukera emanez.

Ibilbidearen progresioa (lehenaldia eta orainaldia):

- 5. Sartu zinen garaian zein zen proiektuak bizi zuen egoera ikastetxe ezberdinetan?**
- 6. Egunak eta urteak igaro egin diren bezala hezkuntza bera ere aldatu egin da. Nolako eboluzioa bizi izan du proiektuak ordutik gaur egunera?**

Bai, materialari dagokionez eraldaketa nabarmena izan da. Gaur egun materiala modu global batean ikusten dugu eta ez da soilik liburu zehatzetara mugatzen. Konfinamenduan gainera asko ikasten ari gara eta azkeneko urteetan izan dugun metodologia aldaketa esperientzia-pilotoari (inprobisazioari garrantzia ematekoa) etekina ateratzen ari gara online eskolen bidez. Teknologia berriei dagokionez ere asko ikasten ari gara, gaur egunean baliabide asko diugu eskura eta ezezagunagoak genituenak praktikan jartzeko aukera izaten ari gara.

Irakasleen formakuntza:

- 7. Egitasmo honen deskribapen ezberdinetan, hala nola, Bertsozale Elkarteko web-gunean, nabarmendu egiten da proiektuan bertan lanean zaudeten irakasleek formakuntza jasotzen duzuela. Nolako formakuntza mota jasotzen duzue?**
- 8. Formakuntzaz gain aipatzen da material berria ere sortzen duzuela. Nolako material mota sortzen duzue eta taldean sortzen al duzue material hori?**

Baliabide didaktikoen atalean aipatua.

Proiektua barrutik:

9. Proiektu honek zenbait helburu zehazten ditu, horietako bat euskararen sustapena da. Ikasleek egitasmoari esker zein onura lotzen dituzte euskararen jabekuntza eta erabilera mailari dagokionean?

10. Euskararen erabilera eta ahalduntze hori eskuratzeko nola motibatzen dituzue? Zein teknika mota erabiltzen dituzue?

Nahiko zaila ikusten dut ebaluatzen... Baina esan dezaket jarrerari dagokionez nahiko erantzun positiboa duela; euskararen kontrako edo erabileraren kontrako ume horiek ere azkenean euskaraz ondo pasatzea lortzen dute, konturatu gabe hizkuntzaz aldatu eta konturatu egiten dira. Bertsoak gainera euskaraz dira, ez gaztelaniaz eta sortzen den harreman hori neurri batean mantendu egiten da. Hiztegia ere landu egiten dute eta landutzako hitzak ez dira adibidez txanelan lantzen dituztenak bezalakoak, nahiko sinpleak dira. Bazileoa eta irain txikiak ere sartu egin daitezke eta asmatutako hitzek ere lekua dutenez euskara maila baxuko ikasleei ere gozatzeko aukera ematen zaie.

Guk miraririk ezin dugu egin baina bai karril aldaketa bat. Bertso mundura salto egitea erabakitzen duen pertsonak txip aldaketa bat egiten du: motibazioagatik, hizkuntza hautuagatik... Hizkuntzarekin "klak" bat ematen da eta 18 urteekin izaten den hezkuntza hautu horretan etorkizunean nola bizi nahi duen aukeratzen du.

11. Bertsolaritza euskal kulturaren parte izanda, nola eragiten diezue ikasleei euskal kulturara hurbiltzeko?

Bertso zaharrei esker ez dugu bakarrik bertsolaritza zer den erakusten, gure herriaren historia erakusteko aukera daukagu ikuspegi ideologiko batetik. Gure arbasoek nola bizi ziren, zituzten garai gogorrak, garai zorionsuak, etab. bertsoek erakusten digute.

Bestalde, sormena lantzeko ere balio du bertsolaritzak gizarteratze prozesu horretan; izan ere, ikasleen artean harremantzen, gauzak adosten edo jendeaurrekotasuna lantzeko aukera ere luzatzen zaie. Hauek guztiak kale edo plazari begira onura nabarmenak izan dituzte. Ez soilik bertsolariak izaterako garaian; pertsona asko idazle, poeta, antzezle, musikari... bihurtu baitira sormen horri esker. Politena da bertsolaritzak giro jator eta gazte batean murgiltzeko aukera ematen duela (dantza talde batean bezala adibidez).

Azkenik, kritikoa izan nahiko nuke ikasleen gaur egungo kultura jakintzarekin. Ikasleak inoiz baino kultura oinarri baxuagoarekin datoz; bai doinu, errima, kultura orokorraren aldetik.. galera handia egon da. Lehen ikasle askok zekizkiten "maritxu nora zoaz" edo "Orioko balea"-ren kantak eta gaur egun euskal kulturaren oso ezagutza urria daukate. Lehen irakasleek zein gurasoek bultzatu egiten zituzten horiek ikastera baina gaur egun ez dugu ezta hori lortu ere. Gure aldetik, beste abiapuntu batetik hastea suposatzen digu. Kontua ez da kantaren bat edo beste jakitea, gehienek ez daukate errimaren noziorik; ez dakite errima bat ere zer den. Eta kontu hau ez da bertsolaritzaren kontua, egunerokoan hizkuntza bat ikasterako orduan sakontzen den kontua da. Oinarri minimo bat eskatzea ondo legoke hezkuntzatik; "regetoia" badakite baina euskal kantu eta historia ez.

12. Musikak ba al dauka eraginik kultura-hurbilpen horretan? Hala bada, zein teknika erabiltzen dituzue?

Askotan esaten didate... ba rapa.. baina rapak ez dauka metrikarik. Bertsolaritzak rapak ez duen estruktura finkoagoa eskaintzen du eta muga horrek asko errezten ditu gauzak. Adibidez, ume bat ez da rap bat egiteko kapasa baina koplak xume bat egiteko bai. Umeak gai dira erritmo bat jarraitzeko eta pare bat errima tartekatzeko eta behintzat ahal dutena egiten dute.

13. Beste helburuetako bat ikasleak bertsozaletzea izango litzateke. Eskoletan ikasleak bertsozaletu direla ikusi al duzu? Haziak landatu ostean fruiturik jaso al duzue bertso-eskoletan?

Gizartea asko aldatu da eta gaur egun ikasleek aisialdiari lotutako kontu pila bat dituzte eskura. Lehen gizartea kolektiboagoa zen eta eskaintza bera ere xumeagoa zenez aski izaten genuen klaseetatik pasadatxo batzuk eman eta ikasleak gurera gerturatzeko. Lehentasunak ere aldatu egin dira eta familien aldetik ere aldaketa egon da; lehen euskararen salbazioarekin lotzen zen eta seme-alabak bertso-eskoletara eramaten zituzten.

Hamar urteko ziklo bat ematen ari dela konturatzen ari naiz; Lehen Hezkuntzan bertsolaritza jaso zuten ikasleek eta une horretan hontaz paso egiten zuten horiek denborarekin gurera hurbildu egin direla. Baliteke hizkuntza hautuarekin lotura egotea, giro gaztearekin edo agian euskaraz bizitzeko alternatibekin ere. Hala ere, gu saiatu egiten gara hezkuntza arautuetaz kanpo aisialdiarekin lotutako ekintzak sortzen; bertso-lehiaketak,

bertsopaper lehiaketak, udaleku eta barnetegiak... Modu honetan bertso munduko jendea ezagutu egiten dute eta bertso eskolak nola funtzionatzen duten ikusten dute. Batzuk geratu egingo dira eta beste askok alde egin, baina aukera hori bermatu egiten diegu.

Une honetan Araban nahiko erantzun ona jasotzen ari gara eta bertso eskoletan gazte ugari ari dira gozatzen, daukagun irakasle talde bikainarekin batera.

Arabako errealitateak eta metodologia:

14. Proiektua Araba osoan ikastetxeetan aurrera eramaten da. Zein eskualdetan ematen dituzu saioak?

Ba nire kasuan Araba osoan zehar eman ditut klaseak, eskualde guztietan esango nuke.

15. Proiektuak ikaskuntza autonomoa eta parte hartzailea bultzatzen duela aipatzen da. Jakinda Arabako eskualde bakoitzaren euskararen errealitatea oso ezberdina dela, metodologikoki eta didaktikoki egoikitzapenik egiten al duzue? Hala bada, adibideren bat emango zeniguke?

Bai, saio ezberdinak ematen ditut. Herri gehienetan euskara maila oso altuko ikasleak izan ditut, baina baita oso oso maila baxuko ikasleak ere... Saioak moldatu egiten dituzu ikasle bakoitzari zeozer aportatzeko. Gainera azterketarik ez dugunez presiorik gabe lan egiten dugu eta beste zenbait irakasgaitan modu lasaiago eta entrenigarriagoan lantzeko zailtasunak dituzten arren gurera talde lanean gozatzerantz etortzen dira. Plan A, B,C eta Z ere izatera iritsi naiteke.

Askotan ariketa batekin triumfatuko duzula uste duzu eta konturatzen zara ariketa hori haiantzat ez dela ezer eta nahiago dutela koronabirusari buruz hitz egiten egon. Ba dena berrantolatu eta bertsoak bat batean botatzen jartzen dituzu, esaten dutena edo nola egiten duten erreparatu gabe.

Azkeneko honekin askotan tematu egiten gara errimatu egin behar dutela diogunean eta ez gara konturatzen euskara maila baxuko ikasle batek adibidez zailtasunak dituela zenbait errima esaldiaren bukaeran jartzen. Horrek zentzurik gabeko esaldiak botatzera eramaten du, une horretan konturatzen gara hobe dela errimatu gabe inprobisatzea, belarriz errimatzea edo koplak botatzea.

Baliabide didaktikoak:

16. Liburuekin eta baliabide teknologiko ezberdinekin lan egiten duzue. Zein aukera eskaintzen dizkio bakoitzak ikasleriari?

Orain arte uda bukaeran edo Irailean bildu izan gara baina azkeneko urteetan urte osoko jarraipena egiten saiatzen ari gara, irakasle taldea bildu eta talde terapia eginez: zer egin den hausnartu, egin daitekeena begiratu, elkar zaidu...

Teoria berriaren arabera metodologia zeharo aldatzen ari gara eta inprobisazioaren hautua hartuta daukagu. Hala ere, niri gustatu egiten zait ekoizpenekin batera tartekatzea: narrazioa, ipuinak, entzumenaren bidezko sorkuntza, musika...

17. “Bertso ikasgela” web-orriko baliabideak erabiltzen al dituzu? Hala bada, zergatik?

Nire kasuan pila bat erabiltzen dut. Aukera eaten digu egindako lana igo eta partekatzeko, jolasak sortu eta jolasteko, audioak grabatu eta igotzeko. Arbel digitalak klase guztietan daudenez baliabide egokia ikusten dugu dena eskura izan eta liburuarekin batera saioak emateko.

Ondorioak eta emaitzak:

18. Azkenik, proiektuak urteetan zehar izan duen ibilbidea eta hartutako indarra ikusita uste al duzu “Bertsolaritza Ikastetxean” proiektuak hezkuntza arautuan jorratzen jarraitu behar dela? Zergatik?

Garai txarrean galdetu didazu hau... Urte hauetan konturatu gara gure proiektuaren hauskortasuna neurri batean udaletxearekin daukagun harremanean dagoela. Izan ere, finantziarioa hauen diru-laguntzekin batera ematen da hezkuntza arautuan eta hau bertako curriculum eta edukietan sartzen ez den bitartean horrela jarraituko dela ikusten dugu. Bertsozale Elkartetik ere gure lana bultzatzen saiatzen ari gara, subentzioak murrizten ari diren arren gure jarduna aurrera eramaten saiatuz. Sartuko zaigun krisi ekonomiko honetan kontziente izan behar gara gu tipularen kanpoko geruza garelako...

Bestalde, konturatu beharko lirateke umeei sei hilabete hauetan zehar euskararen inguruan ezer gutxi jaso dutela eta honek hizkuntza mailan erorketa handi bat suposatuko duela. Gu alternatiba bat izanik eta onurak eragin ditzakegula ikusirik gure jarduna aurrera eramaten jarraitzeko intentzioz jarraituko dugu.